

uk

164. zenbakia / 2009ko urriaren 19a



EUSKARA AMORA

Erakusketa
Azaroak 2-28 Algortako azokan

Nola eskatu euskaraz erraz-erraz? Nola galdetu produktu baten prezioa? Frutak, barazkiak, arrainak, ogiak... euskaraz. Agurrak, zenbakiak ...

EKINTZA OSAGARRIAK

ARDO DASTAKETA, Mikel Garaizabal sommelierra
Azaroak 7. 12:00. Algortako azokan. Plaza mugatuak. Doan.
Izena emateko epea: azaroaren 4ra arte (944660010 euskara@getxo.net).

EUSKARA ETA MUSIKA LAGUN, EROSKETETAN TXAPELDUN!

Zatozte gurasoak eta haurrak (3-8 urte) elkarrekin dantzatzera eta kantatzera!

Azaroak 14. 12:00. Algortako azokan.

Izena emateko epea: azaroaren 11ra arte (685732963 sendigetxo@yahoo.com). Doan.

Begirale zerbitzua: 3 urtetik beherakoentzat, Aldai Patronatua 11:30ean (aurretik jakinarazi).

Antolatzailea: SENDI

MERKATUAN BERTSOTAN

Lizaso eta Peñagarikano librea arituko bertsotan, postuz postu, trikitixak lagunduta

Azaroak 21. 12:00. Algortako azokan. Doan.

Antolatzailea: ALGORTAKO BERTSO ESKOLA

MERKATUAN KANTETAN

Euskal kanta ezagunak abestuko ditugu azokaren giro epelean. Letrak ez badakizkizu, ez kezkatu, liburuxkak banatuko ditugu eta.

Azaroak 28. 12:00. Algortako azokan. Doan.

Antolatzailea: EGIZU

Laguntzaileak :

Algortako azokako dendariak



Hizkuntza aholkularitza Getxoko saltokiei
94 415 22 52 | gehi@getxo.net

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua
94 466 00 10/11 | euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Maitane Nerekan

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmínaga, Julen Nafarrate,
Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jokin Aspuru, Jorje Perez, Bittor Egurola,
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

MARRAZKILARIA: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF


LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarte
Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA:
900 940 111

Non zer

4. GU GEU.

5. IRUDIA. Zapatak zintzilik.

7. LEHEN ETA ORAIN. Barrikako babes-ebrea.

8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.

11. ERRETRATUA. Silvia Garcia.

12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.

Berango 22. Gainerako herriak 23.

25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Bizkaiko Zubia, bisita antzeztuak.

28. ARGAZKIA. Zezen plaza Bizkaiko Zubian.

30. BERBETAN. Idoia Mendia.

34. FOTOGRAFIA. Gonzalo Iribarnegaray.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Donostiako Beldurrezko Zine Astea. Film Labur Lehiaketa.

43. MUSIKA. Durangoko Azokarako nobedadeak. Diskoen erreseinak.

44. LIBURUAK. Azken egunak Gandiagarekin. Erreseinak.

45. KIROLAK. Isaac Aketxe.

46. ELKARRIZKETA. Erandioko gertakizunak.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Boga Jatetxea, Algorta.

50. HOROSKOPOA.

51. KOMIKIA. Dogan Gozel.

52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.

53. FLASH BACK. San Agustin Ikastetxeko Futbol Taldea, 1955.

54. AITORMENAK. Borja Perez.

Azala: Gonzalo Iribarnegaray



30 Idoia Mendia

Berbetan

Barrikako zinegotzi (PSE) izan zen
2003-2007 bitartean Jauriaritzako
gaur egungo bozeramailea.



11 Silvia Garcia



54 Borja Perez



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

Bisita egizu gure web berria
eta hartu **txanda on-line**

www.renaultleioa.com

Leihatila

> Aiala Elorrieta

IKEA

Azken zutabean, plastiko poltsez, ontziki eta edukiontziez aritu nintzen. Carrefour supermerkatu sarea ere aipatu nuen. Oraingoan, gai horretatik larregi urrundu barik, altzariez hitz egin gura dut, eta, horren harira, Ikea multinazionalaz. Erosi, erabili eta bota; edo zenbait kasutan, erosi-eta-bota. Lipovsky filosofo frantsesak “Kleenex gizartea” izena ematen dio fenomeno horri. Ikeari esker, altzarien mundura ere hedatu da azken urteotan. Gure etxeko errepublika independentea, erraz eta “merke” apain dezakegu goitik-behera. Apaindu, berrapaindu, eta bidean, altzariak erosi, erabili eta bota. Zorionez, internetek, sorpresa asko ematen digu. Badira hainbat eta hainbat web-orri, altzari erabiliak birsaltzen dituztenak. Horrela, hasiera batean hankamotza ematen zuen bidea, ziklo bihurtzen da: erosi, erabili, saldu, erabili... Erabilitako altzariak erosteko aukera zabala da sareari esker, eta gainera, Ikean bertan baino prezio merkeagoan... Orain bai, ongi etorri errepublika independentera!

gu geu

Eskolan irakatsi ez digutena

Komunikazio eta informazio gizartea omen da gurea. Esnatzen garenetik, ohean sartu arte milaka “eraso” informatibo jasaten dugu. Dena jakitera “behartuta” gaude, bizitzan aurrera egiteko, zein zoriontsu izateko ezertarako balio ez badigu ere. Zapateroren alabek jantzi ederrak jantzi zituztela AEBra egindako bidaian, Alabaman gizon batek ipur masailak operatu dituela, Indian Guinness errekorra lortu dutela opil erraldoia egiteagatik... Metroko elkarriketak betetzen dituzte gai horiek guztiak. Baina zer dakigu egunero zapaltzen ditugun kaleetan gertatzen denari buruz? Guk, UK-ko kideok, gauza barria ikasi dugu 164. ale honegaz, eta horrek hausnartzera eroan gaitu. Erandion 1969. urtean gertatutakoen barri eman digute Manolo Castrillok, Josu Cerratok eta Kontxi Fernandezek; eurek esandakoak aurkituko dituzu 46 eta 47. orrialdeetan. Kutsaduraren aurkako protestek, errepresio bortitzagaz isilaraziak izan ziren orain dela 40 urte. Hainbat kaltetu egon ziren, hildako bi tartean. Haizeak eta krisi ekonomikoek aireko kutsadura partikulak eroan badituzte ere, Erandioko gizon emakumeen zauriak zabalik daude oraindino. Eskolan Carlomagno nor zen irakatsi ziguten, baina ez ziguten honen barri eman. Informazio hau zugana heltzen bada, harro egongo gara “komunika-bidea” izateagatik.

UK-ko lantaldea

Iritzia

Mobuto senegaldarraren bizitzaren pasarte bat kontatu digu Juan Luis Mugertza berangoztarrak. Aitzakia ona gizarteaz, hizkuntzaz eta immigrazioaz hausnartzeko.

Mundua ulertzeko manierak

Mobuto Senegalgoa da, baina orain Getxon bizi da. Gazteleraz nola edo hala egi-ten du eta orain euskara ikasi nahi du. Dagoeneko, hilabete batzuk daramatza eus-kaltegian eta gauza batzuk esaten ditu. Esaterako, “Ni Euskal Herrian bizi naiz”.

«Euskarak besapeetan kili-kili eragiten diola dirudi: ahoa zabaldu orduko barrez hasten baita»

eragiten diola dirudi: ahoa zabaldu orduko barrez hasten baita. Batzuetan, txorien kan-tuekin parekatzen du euskara, bereziki ira-kasleak erdi txantxetan esaten dionean: “Mobuto, belarri horrek zer esaten du?” “Belaggi honek...”; eta, orduan, belarri-gingi-la ukitzen du adierazteko txori horren habian arrautza erruteko denbora falta duela. Hala ere, badaude gauza asko ulertzen ez ditue-nak: bertako asko euskaldunak izanda ez egi-tea edota ez ikastea. Hori ez du behin ere

Berak badaki nora etorri den, berak badaki nondik dato-rren, baina berak ez daki oraindik bere ametsek zer egingo duten. Euskarak besapeetan kili-kili

ulertu: “Gero, abertxaleak dira”, “Abertxaleak ez, abertzaleak”, ”Zuk ulertu, ezta?”. Horrelako gauzak tabernan daudela esaten dizkio irakasleari ahopetan, badaezpada, Mobutori jendearekin haserretzea ez baitzaio gustatzen. Lehengo egunean, atsedenaldi oste-an, ariketa bana egin zuten Mobutok eta ikas-kideek; ariketa polita irakaslearen ustez, berba egiteko aukera ematen duen horietakoa. Eta orduan bakoitzak bere etxea deskribatu behar izan zuen: “Zenbat metro koadro duen, loge-lak nolakoak diren, sukaldea txikia ala handia den..”. Azalpenak entzutean Mobutoren bihotza argirik gabe gelditu zen, ilunpetan, eta Senegalgo familiaren lastozko etxea imaji-natu zuen kriseilua piztuta. Halarik ere, Mobutok aurrera egin zuen, berak oso ondo baitaki errealtatearen gogorrari aurre egiten eta orduan La Guia Inmobiliaria. Construc-tora y promotora egunkaria hartu, eta Getxoko pisu dotore bat aukeratu zuen ondo-koari kontatzeko. Gainera, ikaskide guztiak gonbidatu zituen bere etxea barrutik ikus zezaten: “Gure etxeak lau logela ditu”. Berak ez zuen esan, baina logeletan andrea eta seme-alabak zeuden. “Gure etxeak egongela handia du”. Berak ez zuen esan, baina egongelan munduko bidegabekeriez arituko zen. “Gure etxeak terraza du”. Berak ez zuen esan, baina terrazatik gau izartsuetan Afrika ikusiko zuen eta itsas zabaleko ur hesietan kateatutakoak askatzen ahaleginduko zen, jakinda behin itsa-sokoak gainditutakoan bestelakoak topatuko dituztela. Berak ez zuen esan, baina etxeko horman ALARMA ikusi eta zera pentsatu zuen: “Noiz piztuko da askoren bihotzare-na?”, zeren eta jendearen hitzen gozoa askotan bera bezalakoekin itzali egiten baita. Iragarkiaren oinak etxearen prezioa zekarren: 811.336 (135 milioi). Mobutok oraindik ez ditu horrelako zenbakiak ikasi, ezta ikasiko ere, baina besteok bai eta hori okerragoa da. Gainera, Mobutok hizkuntza komunikatzeko nahi du, DVDak saltzean zenbaki txikiak erabiltzeko.

Juan Luis Mugertza Unanue (Idazlea)



GETXO, 2009KO URRIA

Mundua desafiatzen/ Gero eta ohikoagoa bihurtu da gurean goiko irudia ikustea. Bertsio ugari daude ohitura horren jatorriari buruz: antza denez, New Yorkeko bandek euren eremuak zehazteko erabiltzen zuten. Ez dugu uste hemen arrazoa berdina denik. Argi dagoena da, zintzilik egoteko, zapatila batek beti behar duela bere bikotea. Mundua desafiatzeko alkarregaz egon beharko dute beti, ezin izango dira banatu. Eta banatu gura izatekotan, ezin izango dituzte lokarriak askatu. Haizeak erabakiko du noiz jarri amaiera-data istorio honi.... ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

GETXO

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO



GETXOKO BIDE HISTORIKOEN TOPONIMIA

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak Getxoko historian erabili izan diren bide pare batean zehar ibilbide gidatuak antolatu ditu. Ibilbideotan, bidearen parte izan diren datu historikoen eta toponimoen berri emango da. Datu historikoak eskainiko dira, bitxikeriak eta azken hamarkadetan izan diren aldaketak alpatuko dira.

Gidaria | Josu Larrañaga
Euskaraz bakarrik
Oinetako erosoak jantzi

1. Ibilbidea | "LEIOATIK BERANGORA ALGORTAN BARRENA"
Artatza (Negurigane)-Neguri-Udaletxea-San Inazio-Basagoiti-Satistegi-Karitate kalea-Portu Zaharra-Aretxondo-San Nikolas plaza-Salsidu-Zubilletako bus-geltokia.
Topagunea | "Artatza" izeneko bus-geltokia, Gobela eraikinaren ondoan, suhiltzaileen aurrean.
Noiz | urriak 3 eta 24
Irteera-ordua | 10:00
Iraupena | 3 h.

2. Ibilbidea | "AREETATIK GETXO ZAHARRERA, ALGORTAN BARRENA"
Bizkaia Zubia-Bola hondartza-Ereaga-Portu Zaharra-San Nikolas-Telietxe-Andra Mariako bus-geltokia.
Topagunea | Bizkaia Zubia
Noiz | urriak 17 eta 31
Irteera-ordua | 10:00
Iraupena | 4 h.




Informazioa eta erreserbak
Tel: 944910800
infoturismo@getxo.net



EUSKARA BIZI

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / BARRIKAKO BABES-ETXEA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > zahartzaroa



2009ko maiatza, Txurruka moila (Areeta)

Testua: **Imanol Uria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Sentimendua sartu zitzaidan*

Denbora beti aurrera doa
Jakitunak gara denak
Adinarekin ahazten ditugu
Sarritan oroitzapenak,
Baina urteak batzuentzako
Beti ez dira problemak
Gorputza sarri zahartu arren
Gazte badirau barrenak;
Gaztetasunik ez du galduko
Galdu gura ez duenak.

Zahartzaroan zergatik bizi
Zahar gehienen erara;
Zergatik irten kalera eta
Berriz itzuli sofara.
Gorputza beti ahultzen doa
Noski, hori egia da
Baina denbora aprobetxatzen
Gogoz saiatzen bagara
Dibertitzeko, adina inoiz
Ez dugu izango traba.

Sarri askotan ez du inporta
Udazken, negu, zein uda
Edozein gauza dibertitzeko
Ez ote dugu gertu ba(da)?
Badakizue beti egon nahi
Duzuenontzat gustura
Sexuak edo eta adinak
Ez du bat ere ardura:
Bizi bizitza agure honek
Egiten duen modura!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



LASTER ATAL BARRIA: IRAGARKI MERKEAK

Etxebizitza, motorra, garajeak, lana, bestelakoak.

- * etxebizitza, motorra, garajeak, langile bila: 5 ale 10 euro.
- * Lan bila, galdu, aurkitu, harremanak, trukeak: 5 ale doan.
- * Gehienez 13 hitz.

* Bidali testua publiuk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo deitu **94 491 13 37** telefonora.

askapena > Palestinagaz *Elkartasun tourra* ate joka, Getxon ere



Palestina izango da ostera ere elkartasun tourraren protagonista.

Euskal Herri osoa zeharkatuko duen *Elkartasun tourra* antolatu du Askapena erakunde internazionalistak aurtien ere. Kontzertuak, mahainguruak, bertso-saioak eta beste hainbat ekimen egingo da, Palestinako herriari sostengua adierazteko asmoz. Herrialde honetatik DAM hip-hop taldea, Basel Zayed folk musikaria, Nabil Monsour bakarlaria eta bertsolari palestinar batzuk etorriko zaizkigu bisitan. Gurean, zine-maratoia antolatu dute Askapenako lagunek urriaren 15, 22 eta 29an, Txorimalo gaztetxean. Bertan, “*Children of Fire*”, “*Domicilio privado*” eta “*Jenin, Jenin*” film eta dokumental ikusgarriak eta hunkigarriak ikusteko aukera izango dugu. Azken lan horretan, esaterako, Mohammed Bakri zuzendari eta aktore ezagunak 2002. urtean Jenin errefuxiatu kanpamenduko sarraskiaren testingantzak biltzen ditu. Tourrari txapela janzteko, Internazionalista Eguna antolatuko dute azaroaren 7an Altsasun. ○

bertsolari txapelketa > Jone Uriak final-laurdena irabazi du



Oholtza gainean gustura jarduten dela erakutsi zuen algortarrak.

4 urte ostean, Zestoako pilotalekuak hartu zuen Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen final-laurdena. Bertsozale ugari kanpoan gelditu behar izan zuten leku faltagatik, euren zoritxarrerako, ezin izan baitzuten Jone Uria algortarraren garaipena ikusi. Lehiakide gazteen artean urduritasuna nagusi izan bazen ere, bertso ederrak entzuteko aukera izan zuten Zestoan batutakoek. Azkenean 19 urteko algortarrak 661,5 puntugaz irabaztea lortu zuen. Uxue Alberdi ez zen oso urrun ibili, sailkapenean puntu eta erdira geratu baitzen. Hauen ostean sailkatu ziren Iñaki Gurrutxaga, Oihana Bartra Erromoko bertso eskolako irakasle ohia, Miren Artetxe eta Odei Barroso. Azaroaren 18an Hendaian izango du Uriak hurrengo urratsa, finalaurrekoa. Animo Jone, egurre! ○



Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...hamia ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.siaazgetaria.com / info@siaazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

izarren distira > gazte artista bila ibiliko dira aurten ere



Azaroaren 6an amaituko da izena emoteko epea.

Iazko arrakasta kontuan hartuta, Getxoko Udalak barriro jarri du abian Izarren Distira lehiaketa. 12 eta 18 urte bitarteko gazteek euren talentua erakusteko aukera izango dute berton. Saria, gainera, ez da edozelangoa: 1.000 eurotako dirulaguntza ikas-bidaiarako ala 6 lagunentzako asteburu-pasa bat. Horiek eskuratzeko, lehenengo azaroaren 6a baino lehen izena emon beharko dute gaztetxoek, eta ondoren azaroaren 10ean eta 11n antolatu diren kasting-etan parte hartu. Ikuskizunak euskaraz izan beharko du eta hamar minutu iraun beharko du asko jota. Antolakuntzatik nabarmendu dute hizkuntzaren trataera, neska zein mutilen parte hartzea eta orijinaltasuna baloratuko dutela; beraz, buruari eragin! Gala finala azaroaren 21ean izango da, Areetako Andres Isasi musika eskolan. Danok daukagu talentu ezkuturen bat, lotsak albo batera uztea da erronka! ○

itsaski bilketa > Butroeko estuarioan debekatua, oraingoz



Plentziako txirlerioak ezin izango dira momentuz bilketan atera.

Eusko Jaurlaritzak itsaski bilketa (profesionala zein aisialdikoa) egitea debekatu du Butroeko estuarioan. Gure kostaldeko txoko horretan, itsaski bibalbioek osasunerako kaltegarriak diren organismo mikrobiologiko batzuk ei dituzte. Itsaski horiek jatea kaltegarria denez, Eusko Jaurlaritzak aipatutako erabakia hartu behar izan du. Azti-Tecnalia laborategiak aldian-aldian egiten dituen azterketetan agertu dira mikroorganismo horrek, eta ez da zehaztu debekua noiz arte egongo den indarrean. Dena den, ez dago alarmarako arrazoirik, aurreko urte batzuetan garai berdintsuetan antzeko erabakiak hartu izan baitira. Bitartean, ostrak, tretxuak, berberetxoak eta txirlak hartzea debekatua egongo da Butroen. EAEko kostalde osoan legez, muskuiluak batzea ere debekatuta egongo da. ○

cianoplan

global printers

Reprografía

Imprimatze eta plano kopiak • Kartelak kolorez eta z/b • Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua • Fotokopiak kolorez eta z/b • Era desberdinetako koadernaketak • Plastifikazioak • Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak • enmarkaketak

Villa de Plentzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>



“Gaur egun edonork dauka tatuaje bat”

Silvia Garcia > Tatuajes Saucoko ugazaba

Garai bateko moderno-ausartak jada ez dira hain modernoak eta ausartak: “*Gaur egun edonork dauka tatuaje bat*”. Hori esan digu Silvia Garciak eta asko daki horretaz. Orain 11 urte zabaldu zuen Tatuajes Saucoko denda Algortan eta, dagoeneko, 20.000 piercing eta 8.000 tatuaje baino gehiago egin ditu: “*Etxean hasi nintzen, nire kabuz ikasi nuen; lehenengoa nire nebari egin nion eta bigarrena nire orkatilan*”. Denda zabaldu zuenean, gure inguruan ez zen lar ohikoa gizon-emakumeen gorputzak tatuajez apainduta ikustea: “*Pentsatu nuen: ondo ateratzen bada bikain; bestela, konponduko naiz. Saiatu gura nuen*”. Gustura egiten du behar: “*Ordutegia da gustuko ez dudana bakar*”. Erretiroa tatuajeak egiten hartu gura du: “*Hilea urdinez tindatu beharko dut, modernoago egoteko*”. Gorputza zulatzeak edo azal azpian tinta sartzeak menpekotasuna sortzen ei du: “*Behin datorrenak errepikatzen du*”. Silviak, 21 piercing eta 13 tatuaje izan ditu: “*Mingainean, adibidez, 4 nituen*”. Denetarik ikusi eta egin duela esan digu: “*Behin zakilean piercinga egin gura zuen gizon bat etorri zitzaidan; abesbatza bateko kide zen eta zuloa egiten nengoela, abesten hasi zen*”. Modak eragin handia du mundu honetan: “*Beckhamek brillanteak ipini zituenean, jende asko etortzen zen horrelakoak erostera. Orain, oster, bikotearen izena tatuatzen dute*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

Langabeziari aurre egiteko

eta bertoko **merkataritza eta enpresa** jarduera **sustatzeko 300.000 euro** inbertituko ditu Udalak; ekainean **%9,4koa** izan zen langabezi tasa, joan den urtean baino **2,3 puntu gehiago**

Bizi dugun krisi ekonomikoaren adierazgarri ikusgarrienetakoa da langabezia. Getxon nabarmen igo da behar barik dauden biztanleen kopurua azken urtean. Horri aurre egiteko eta merkataritza eta enpresa jarduera sustatzeko, egitasmo barria jarri du martxan Udalak.

300.000 euro. Hori da, hain zuzen ere, Getxoko Udalak bertoko beharginen kontratazioa eta enpresa eta merkataritza sustatzeko inbertituko duen diru kopurua. Ekimen barri hau *Getxoko sustapen eta dinamizazio ekonomikorako Plan Berezia*-ren barruan kokatzen da, eta udalerrri mailan aitzindaria da Bizkaian. Diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte Getxon dauden enpresa eta saltoki guztiek edo, kanpokoak izan arren, Getxon dagoen lantoki baterako behargin bila daudenak. *Getxolan, Getxoko Udalaren Sustapen Ekonomikorako eta Enplegurako Zerbitzua* arduratuko da ekimena aurrera eroateaz.

Getxolanek kaleratutako 2009ko 2. hiruhilekoaren langabezi txostenaren arabera, 2009ko ekainean %9,4koa izan da langabezia tasa, joan den urtekoa baino %2,3 altuagoa. Gizonezkoen artean eman da igoera handiena (%2,7), nahiz eta, sexua kontuan hartuz gero, emakumeen artean dagoen langabezi tasa altuena (%11 emakumeak, %8 gizonezkoak). Guztira, 36.116 biztanle aktibo dago eta, horietatik, 3.403 langabe-



Ekimenaren helburuetako bat herriko langabezi tasa murriztea da

tuak dira. Langabetuen kopuruak gora egin badu ere, joan den urtean baino enpresa barri gehiago sortu dira aurten.

Udalaren plan barriagaz, 100 kontratazio baino gehiago egin ahal izango direla aurreikusten da. Diru-laguntzak,

«Laguntzak 2010eko apirilaren 15a bitartean egindako kontratuei aplikatuko zaizkie»

2010eko apirilaren 15a bitartean egindako kontratuei aplikatuko zaizkie, nahiz eta eskaerak 2009ko azaroaren 20a baino lehen entregatu behar diren San Martin kaleko 17. zenbakiko bulegoetan. Kontratututako pertsonak, langabezian eta Getxon erroldatuak egon behar dira; pertsona horietako bat kon-

tratatzean, enpresaren langile kopurua handitu behar da. Sei hilabeteko edo gehiagoko kontratuentzat 4.000 euroko diru laguntza emango da; hiru hilabete edo gehiagokoentzat aldiz, 1.500 euro. Kopuru horiek %10 igoko dira baldin eta emakumeak edo 45 urtetik gorako pertsonak kontratatzen badira.

Diru laguntzen eskaerak, aurkeztu diren ordenaren arabera hartuko dira kontuan eta Udalaren aurrekontuetan eginkizun horretarako emandako dirua amaitu arte banatuko dira. ○

Datu batzuk

- **%9,4:** 2009ko ekaineko langabezi tasa
- **%2,3:** igoera 2008ko datuakaz alderatuta
- **%11:** emakumeen LT 2009ko ekainean
- **%8:** gizonezkoen LT 2009ko ekainean

Euskara ahora eroango

dute azaroaren 2tik 28ra Algortako azokan



Hainbat egitasmo burutu dute Getxoko dendetara euskara eroateko

Ogia, ziazerba, ikua, kinpulea, legatza, alberretxikoa, haragi-xerra e. a. egunero dendan erosten ditugun horiek badute bere izena euskaraz. Zenbatetan gertatu zaigu erosketak egin eta dendaria agurtzerakoan, berak ere euskaraz dakiela jakitea? Horrelakorik ez gertatzeko eta Getxoko merkatarien eta bezeroen artean euskara sustatzeko, hainbat kanpaina ipini dituzte martxan azken urteotan Gehi Euskara Merkataritza egitasmoaren barruan. Horiekaz guztiakaz *Euskara ahora* erakusketa egingo dute azaroaren 2tik 28ra Algortako azokan.

Aldizkari honetan behin baino gehiagotan ikusi ahal izan dituzuen fruten eta barazkien posterrak (oraindik Amezti 6 kaleko bulegoan eskuragarri dituzuenak) eta beste hainbat kartel eta argazki ikus

ahal izateaz gain, ekintza osagarriak egingo dituzte azokan, barbarako: azaroaren 7an ardo dastatzea Mikel Garaizabal goimailako somelierragaz (parte hartzeko hilaren 4a baino lehen izena eman behar da Euskara Zerbitzuan); azaroaren 14an ume eta gurasoentzako jaialditxoa, Xirula-Mirula musika eskolako lagunakaz (honeitarako ere, izena eman behar da, azaroaren 11 baino lehen Sendikoen bidez); hilaren 21ean eguerdian Algortako Bertso Eskolaren ekimenez bertso saioa egingo dute Lizaso eta Peñagarikanok eta hilaren 28an (12:00), Josu Landetak eta Katxok euskal kantak abestuko dituzte. ○

Informazioa Euskara Zerbitzuan:
euskara@getxo.net edo 94 466 00 10

Informazioa Sendin:
sendigetxo@yahoo.com edo 685732963

SEME-ALABA TXIKIEN HEZKUNTZAN LAGUNTZEKO 250.000 EURO

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan dauden seme-alabak dituzten familientzat 250.000 euro bideratuko ditu Udalak 2009-2010 ikasturterako. Diru laguntzak jaso ahal izateko, gutxienez 2009ko urtarilaren 1etik herrian erroldatuak egon behar dira, eta neska-mutiko bakoitzeko eskaera bat izapidetu ahal da. Eskabide-orriak, beharrezko dokumentazio guztiagaz, urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira Getxoko Herritarren Arretarako edozein bulegotan. Imanol Landa alkateak esan duenez “*aparteko neurria da hau, ekonomiak bizi duen beheraldiaren harira hartutakoa*”.

BIZARRA LEPOANEK KUDEATUKO DU LUDOTEKA

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak kudeatuko du Areetako ludoteka ikasturte honetan. Irailean hasi ziren beharrean nahiz eta matrikulatzeko epea urte osoan zehar egongo den zabalik. 5 eta 7 urte bitarteko umeak astelehen, eguazten eta barikuetan joan ahal izango dira eta 8-11 bitartekoak martitzenetan eta eguenetan. Areetako Eskoletako plazako lokala 17.00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

GURASOEN ESKOLA AZAROAN ERE BAI

Aurrera doa Gurasoen Eskolako 2009-2010 ikasturtea. Norberaren-estimua, drogak, gurasoentzako psikologia eta eskola-arrakasta dira aurten landuko dituzten gaiak. Azaroaren 9an *Eskolan arrakastaz aritzea* ikastaroa izango da Divina Pastora zentroan eta *Nerabetastunarekin batera bizitzen* Aixerrota institutuan; gai hori Artazan errepikatuko da hilaren 10ean. Azaroaren 11n, *Eskolan arrakastaz aritzea* ikastaroan parte hartu ahal izango da Larrañazubín eta 12an *Gure seme alabak zigortu ala saritu?* izeneko ikastaroa egingo dute Erromon. Ez da aurretik izena eman behar eta pertsona interesatuek aukeratutako zentrora zehaztutako egunean joatea besterik ez dute.

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
195IN SORTUX

LCC - A1 - A - B - BTP

baimenak

Teléfono 13 / Tlf. 94 460 00 45

ALGORTA

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak


Tlf. 944 430 92 43 / 907 962 977 • registrar@euskalnet.net
Bila kalea 1• ALGORTA

Torre 2
48930 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

DPARIAK MODA GAZTEA

Gonzalo Iribarnegaray > idazlea eta argazkilaria; *Tierra* erakusketaren egilea

“Leku berbera oso ezberdina izan daiteke ikusten duten begien arabera”



Gonzalo Iribarnegaray

Mundua ikusteko era bat. Hori da Gonzalo Iribarnegaray bidaiari getxoztarrak *Tierra* erakusketan islatu gura izan duena. Afrikan eta Asian egindako argazkiakaz eta idatzitako testuakaz osatutako bilduma pertsonal hau, Algortako Satistegi tabernan ikusgai egongo da abendura arte. Urriaren 22an arrastiko 20:00etan egingo duten aurkezpen ekitaldian, egilearen bizipenak ezagutzeko aukera egongo da.

—Zer aurkituko dugu *Tierra* erakusketan?
—Argazkiak munduko txoko ezberdinetako lagunen irudiak dira, batzuk erretratuak, besteak pertsonak euren ingurunean; baina, horren atzean, mundua ikusteko nire era dago. Hau da: Gonzalo Iribarnegaray munduan zehar egindako bidaietan, zelan ikusi duen Lurra. Hortik, *Tierra* izena. Nik ikusten dudana Lurra da; leku berbera oso ezberdina izan daiteke begiratzen duten begien arabera. Ikusleak nik bidali gura du-dan mezua uler dezake ala ez, hori bere

esku dago. 13 argazki dira, Afrikan eta Asian egindakoak. Horietako bat, 25 argazki txikik osatutako mosaikoa da.
—Testuak ere badaude, ezta?
—Bai. Argazki erakusketa bada ere, atzean testuak daude. Ni ez naiz argazkilaria profesionala, zalea baizik; denbora gehiago eskaintzen diot idazteari. Testu gehiago jartzeko asmoa neukan, baina argazkiek gura nuen mezua transmititzen zutela ikusita, testu batzuk erakusketatik kanpo uztea erabaki nuen. Hala ere, *Egilearen txokoa* izeneko espazioa sortu dut; bertan, erakusketari buruzko

testuez gain, Lurraren defentsari buruzko aipuak jarriko ditut.
—Zure azken bidaia Etiopiara izan da.
—Bai. Herria ezagutzeaz gain, mende-baldeko gizarteagaz harreman gutxien izan duten tribuak ezagutu gura nituen, Sudaneko mugan daudenak, hain zuzen ere. Han ikusitakoari buruz erreportajea idatzi nuen, baina momentu honetan eleberri bat idazten ari naiz, eta gurago dut horretan zentratu.
—Zer azpimarratuko zenuke Etiopiako bidaiatik?
—Bidaiatzen dudanean paisaiak, animaliak eta pertsonak bilatzen ditut.

«Etiopian mendebaldeko kulturatik erabat isolatuta dauden tribuak daude»

Saharara, Zinbawera edo beste lekuetara egindako bidaietan, paisaiek indar handia izan dute, baina bertako biztanleak mendebaldeko kulturaren eraginpean egon dira. Etiopian aldiz, mendebaldetik erabat isolatuta bizi diren tribuak aurkitu ditut, bizimodu erabat ezberdina dutenak. Denboran atzera egiteaz gain, mundua ulertzeko daukaten moduak harritu nau. Animaliakaz lotura estua dute: borrokak, gorputzean zauriak egiteko ohitura...
—Zelan hartu zaituzte?
—Tribuak ezberdinak dira, eta horregatik, ongietorriak ezberdinak izan dira. Batzuk, mendebaldarren bisitetara ohi-tuak daude eta gogoz hartu gaituzte. Beste batzuk aldiz, gogor hartu gaituzte. Horiekaz bizitzea zaila izan da, eta ordu batzuk pasa ostean alde egin behar izan dugu, ez baitzuten gugaz egon gura. ○

www.gonzaloiribarnegaray.com

Kubako emakumeen

gaineko erakusketa **urriaren 19tik 28ra**
Villamonteko Kultur Etxean



Emakumeen egoera islatzen duten datuak eta argazkiak izango dira erakusketan

1959an Kuban Iraultzak irabazi zuenetik, gogor lan egin behar izan dute kubatarrek euren herria aurrera atera eta kanpotik jarritako, zein barruan aurkitutako oztopoak gainditu ahal izateko. Emakumeek gizonakaz batera borrokatu dute urte hauetan guztietan, nahiz eta askotan, euren beharrari ez zaion merezi duen garrantzia eman. Euskadi-Cuba Kubarekiko adiskidetasun eta lankidetzarako elkarteak, Karibeko irlako emakumeek berdintasunerako bidean emandako pausoen inguruko erakusketak prestatu du, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako *Kuba eta*

Bizkaia arteko elkartasun sareak elkartzen egitasmoaren barruan. Erakusketa Villamonteko Kultur Etxean ikusgai egongo da, urriaren 19tik 28ra, astelehenetik zapatuta.
Horrez gainera, hilaren 20ean Isabel Moyak, Jose Marti Kazetaritza Institutuko Genero eta Komunikazio Katedrako lehendakariak eta Mujer de Cuba argitaletzeko zuzendariak, hitzaldia eman-go du arrastiko 19:30ean Alday Patronatuan. Moyak, komunikabideek ematen duten hegoaldeko emakumearen irudia aztertu eta horren gaineko hausnarketa eskainiko du. ○

ZINE KLUBAREN DENBORALDI BARRIA

Getxoko zinemazaleak zorioneko daude. Izan ere, urriaren 23an Zine-klubaren 2009-2010 denboraldia hasiko da. Getxo Antzoki barriaren eraikitze lanak direla eta, aurtan Areetako Andres Isasi Musika eskolan izango da zita barikuro, gaueko 22:00etan. Clint Eastwood zuzendaria eta aktore bikainaren *Gran Torino* filmagaz emango diote hasiera denboraldiari hilaren 23an. Urriaren 30erako aldiz, Dany Boonen *Bienvenidos al Norte* filma aukeratu dute. Ohiturari eutsiz, proiektzioaren ostean forumean parte hartzeko aukera izango dute hurreratzan direnek. Sarrera 2,90 eurotan egongo da.

X. INDABADA OSPATUKO DUTE ALGORTAKO GAZTEEK URRIAREN 31N

Denbora aurrera doa eta dagoeneko 10 urte bete ditu Algortako Gazte Asanbladako lagunek antolatzen duten indaba jana herrikoiak. Urtebetetze borobila behar bezala ospatzeko hainbat ekintza prestatu dute urriaren 31rako. Goizeko 11:30ean diana eta txistulariakaz hasiko da ospakizuna. Ondoren, jolasak eta dantza erakustaldia egongo dira. 13:30ean ekitaldia egingo dute; bazkal ostean tabernarik taberna ibiliko dira fanfarreagaz batera. Ekintza guztiak Algortako Biotz Alai plazan egingo dituzte; bazkaritarako tiketak alde zuzenetik erosi beharko dira La Plaza, UK eta Gestoras tabernetan.

XXIX. ASTE KORALA EL REDENTOR ELIZAN

Europako abesbatzen ahotsak Algortako El Redentor elizan entzungo dira urrian XXIX. Aste Koralaren barruan. Hilaren 28an, Frantziatik etorritako Choeur de Chambre du Maine entzun ahal izango da. Hilaren 29an Oriavera Children's Choir Txekiar Errepublikako ume abesbatzaren txanda izango da eta hurrengo egunean, Swedbank Chamber Choir Letoniako lagunena. Emanaldi guztiak 19:30ean eta doan izango dira.



libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Ane Artetxe, Irene Arrieta eta Teresa Atxotegi > Leioako Kantika Koraleko kideak

“Jendea harritu egiten da gure abesbatza bizia, koloretsua eta oso dibertigarria delako”

Ohituak gara dagoeneko Leioako Kantika Koraleko sarien barri emotera. Italiako Arezzo herrian irailaren 17tik 20ra jokatu den nazioarteko abesbatzen lehiaketa irabazi dute umeen mailan.

—Lehenengo eta behin zorionak. Horrelako arrakasta izatea espero zenuten? —Sorpresa izan da danontzat, lehiakideen artean munduko talderik onenak zeudela esan zigutelako. Hungariako taldeak, adibidez, oso maila altua erakutsi zuen. Hala ere, hasieratik oso ilusionatuak joan ginen eta kristoren poza hartu genuen irabazi ostean. Ia-ia hoteletik bota gintuzten saltoka ospatzen hasi ginelako, kar-kar... —Zelangoa izan da Italiako bidaiaren esperientzia?

—Oso ondo pasa dugu, 32 bat gazte joan garelako eta lau egunetan danok alkarregaz egoteko aukera izan dugulako. Hori bai, nahiko gogorra izan da. Goizeko 05:00etan jaikitzen ginen 10:00etan lehiaketan parte hartzeko, bazkaldu eta arrastiko 16:00etan ostabere lehiaketan parte hartu behar genuen. Zoritxarrez, ezin izan dugu beste herrialdeetako taldeakaz harremanik izan, eurak oso lehiakorrak zirelako.



Gabonetan disko barria kaleratuko dute Kantika Koraleko kideek

—Jendea harritu egiten da zuen emanaldiak ikusten dituenean. Zertan da ezberdina bada, Leioako Kantika Korala? —Jendeak hasieran abesbatza tradizionaren ideia dauka buruan: aspergarriak, mugitzen ez direnak... Gure lagunak ere hasieran harritu egiten dira abesbatzako kide garela esaten diegunean. Baina emanaldia ikusten dutenean iritzia aldatzen dute, Kantika Korala dibertiga-

rria delako, koloretsua, oso bizia, pilo bat mugitzen garelako... Oso ondo pasatzen dugu, saioak nahiko gogorrak diren arren. —Gazte bat abesbatzan sartzeko zalanztatan dago. Nola animatuko zenukete? —Lotsak alde batera uzteko esango genioke, hasieran apur bat kostatzen dela, baina gero primeran pasatuko duela, gure artean oso giro ona daukagulako. ○

Kultur Leioa prest

Antzerkia, musika eta erakusketak nagusi Kultur Leioaren neguko **denboraldi barrian**



Wim Mertens (Belgika)

Ekitaldiz josita dator Kultur Leioako egitaraua udazken honetan ere. Izen handiko antzerki taldeak ekarriko dituzte, eta musika zein erakusketek ere euren lekua izango dute denboraldi barrian. Azaroaren 6an izango da lehenengo an-tzerki emanaldia, “Titzina” talde kataluniarraren eskutik. Txikienek ere antzerki-az gozatzeko aukera izango dute, azaroaren 21ean eta 22an haurtxoentzako II. Antzerki Zikloa ospatuko baita Anbigu Aretoan.

Musikari ere berebiziko garrantzia emon diote Kultur Leioako lagunak. Izan ere, urriaren 9an eta 23an, eta azaroaren 13an eta 23an “Udazkeneko XX. Musika denboraldia” ospatuko dute.

Mundu osoko musikagaz gozatzeko aukera izango da bertan, Grezia, Mongolia, Belgika eta Marokotik etorritako musikariek parte hartuko baitute.

Honetaz gain, urriaren 16an eta azaroaren 20an Leioako BluesJazz zikloaren barruan, AEBetako Bill Lyrly Band eta Jimmy Arrabit hirukoteak emango du kontzertua.

Erakusketei dagokienean, “Munduko musika-tresnak” bilduma azaroaren 1era arte egongo da ikusgai. Horren ostean, Daniel Tamayoren obra koloretsuak hartuko dio lekukoa abenduaren 6 arte eta amaitzeko, “Un mundo de marionetas” lana izango dute erakusgai Kultur Leioan. ○

XXX. ARTISAUTZA ETA GASTRONOMIA AZOKA

Gozozaleek eta artisautza gustuko dutenek hitzordua dute azaroaren 6, 7 eta 8an Leioako Boulevardean. Bertara hurreratzaren diren lagunek zeramika, otzaragintza, forjaketa, ehungintza e.a. ikusi eta erosi ahal izango dute. Aurten 30 urte betetzen dituen azokan, gainera, Euskal Herriko produktu gastronomikoak erosteko aukera ere egongo da: idiazabal gazta, sagardoa, txakolina, olio, ogia, euskal pastela, gozokiak, itsasoko produktuak e.a. On egin!

SAN BARTOLOMEKO KULTURGUNE BARRIA

San Bartolome auzoak kulturgune barria du urriaren 4tik. Urte biko obren ostean (eta 1.420.000 euroko inbertsioagaz) auzoko eskola zaharrak barritu dituzte. Hori bai, XX. mende hasierako eraikinaren kanpoko itxura errespetatu gura izan dute, barrutik gune barritzaile eta modernoak bada ere. Kultur etxe barriak Aldekoena, Basañez, Artatza, Artatzagane, Sarriena eta Zuhatzu auzoko herritarrei zerbitzua emongo die. Auzotarrok kultur elkarteak kudeatuko du lokala eta gimnasia, yoga, tai-chi eta beste lantegi batzuk antolatzea aurreikusiko dute.

KALEKO TXAKURRAK SOPELAKE ATERPERA

Leioako kaleetatik galduta dabilztan txakurrek Uribe Kosta zeharkatzeko aukera izango gute, Udalak sinatu duen akordio barriari esker. Udak langileek txakurrak Sopolako “La Casa del Perro” aterpera eroango dituzte eta albaitari zerbitzua eta klinika erabiltzeko aukera izango dute, behar izatekotan. Gaixotasunak ekiditeko asmoz ere, animaliak garbitu eta desinfektatuko dituzte. Euren jabeak aurkitzeko helburuagaz, txipak begiratu-ko zaizkie eta ez edukitze-ko- t- n- eta hile bat igaro eta berehala, adopzioan jarriko dira.

Adopzioan dauden animalien zerrenda: <http://www.lacasadelperro.net>

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kaitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBIn.
- Zerbitsu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskuplota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Lur Merino > Durangoko 44. euskal liburu eta disko azokako kartelaren irabazlea

“Ezinezkoa egin zait diseinatzaile freelance bakarrik lan egitea, proiektuak ditudan arren”

Astrabuduarrak Durangoko Azokako 44. edizioaren kartela irabazi du, ezohiko proposamen batez. Aurten, gainera, 55 diseinatzailek parte hartu dute lehiaketan, iaz baino hogeigehiagok. Abenduaren 4tik 8ra, bere lana etengabe ikusteko aukera izango dugu.

—Zer adierazi gura zenuen kartel honez?

—Harrituta gelditu nintzen irabazlea nintzela esan zidatenean, kartelak ez baitu ohiko kartelaren eredua jarraitzen. Erabili ditudan baliabide grafikoak oso sinpleak izan dira, tipografia protagonista izatea gura nuelako. Liburuak eta diskoak zuzenean jarri beharrean, metafora bat egin dut, irudiari garrantzia kenduz. Esaterako, testua lerro horizontalen artean kokatu dut, liburutegia izango balitz bezala. Letrek diskoak eta liburuak sinbolizatzen dituzte, apalen gainean egongo balira bezala. Austrian XX. mende hasieran egiten zituzten karteletan oinarritu naiz batik bat.

—Kartelaren izenburua “Zure esku dago” da. Zer dela eta?

—Bizi dugun testuingurua kontuan hartu dut kartela diseinatzeko orduan. Krisi garaian argi dago danok ahalegin



Lur Merino

ekonomikoa egin behar dugula aurrera egiteko. Baina horrek ez du kentzen azokatik bueltatxo bat emoteko aukera izango ez dugunik, disko edo libururen bat erosteko. Kartelak ere filosofia berdina jarraitzen du, diseinatzekoan baliabide gutxi erabili ditudalako. Tinta bakarra erabili dudanez, gainera, kartelak ekoizpen gastuak merketuko ditu, krisi garaietan aproposena.

—Erraza da diseinatzaile freelance behar egitea Euskal Herrian?

—Niri gutxienez ezinezkoa egin zait. Diseinatzaile gisa lan egiten dudana beste lan batzuetan ibili behar naiz, klaseak emoten adibidez. Dena den, etorkizunari begira beste proiektu batzuk martxan ditut: artista baten katalogoa, Gasteizko erakusketa bat... Astrabuduan oraindino ez dut lan egiteko aukerarik izan (nire nebaren negozioan lan txiki bat baino ez). Hori bai, zer edozer sortuko balitz oso gustura egingo nuke lan nire auzoan, nola ez. ○

Atxazpe mendi taldeak

kultur astea antolatu du hilaren 20tik 25era; perretxiko **bilketa eta erakusketa** egongo da



Erakusketak, berbaldiak eta urteerak izango dira

Abenturazaleen bizipenak izango dituzte berbagai Atxazpe mendi taldeko aste kulturalean. Urriaren 20tik 25era egunero antolatu dituzte ekintza ezberdinak Astrabuduako Josu Murueta kultur aretoan, arrastiko 8:00etan. “*Jatun Chacua, la cordillera olvidada*” hitzaldiak estreinatuko du astea. Peruko mendietan bizi zituzten abenturak kontatuko dituzte Erandioko bizilagunek eta bertan ataratako argazkiak ere erakutsiko dituzte.

Hurrengo egunean Eneko eta Miyukik hartuko dute lekukoa, “*Sudamérica en tándem*” solasaldiagaz. Hego Amerika tandem bizikleta batean

zeharkatu zuen bikote horrek, eta euren esperientziak entzuteko aukera izango da Erandion.

Alberto Zerain gasteiztarraren txanda izango da urriaren 23an, “*Noches heladas en el Kanchenjunga*” berbaldia-gaz. Hurrengo egunean goiz esnatu eta perretxiko bila joango dira erandioztarrak, goizeko 8:00ak aldera. Urteerara joan gura duenak izena emon dezake, dohainik. Laudioko perretxiko taldearen laguntzagaz, XVII. erakusketa egingo dute Josu Murueta plazan, goizeko 11:00etatik 14:30era. Aste osoan zehar ere, mendi taldearen eta Isaac Rosilloren argazki erakusketa egongo da ikusgai. ○

“GURE ONDAREA EZAGUTUZ” IBILALDIA

Itsasadarreko bisita gidatuen ostean, Erandioko ondarea, kultura eta paisai ezberdinak ezagutzeko aukera izango dugu urriaren 31n. Kultura sailak antolatua, “Gure ondarea ezagutuz” ibilaldiaren III. edizioa izango da. Bertan, Altzaga eta Astrabuduko hiri eta industria inguruaren eta Erandio Goikoa edo Goiherriko landa eremuaren arteko kontrastea ikusi ahal izango dute ibiltariak. Era berean, ibilaldia hainbat interesgunetik pasako da: Artetxe armarría (Arriaga), Andra Mari eliza (Erandio Goikoa) eta San Kristobal basiliza (Goiherri), besteak beste. 09:30ean izango da urteera, 3 ordu iraungo duen txangoa eta gero bokatak, freskagarriak eta kamisetak banatuko dira.

Izena emoteko: 94 489 01 00

“MUGAGABE” ANTZERKI ZIRKUITUAREN HASIERA

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta “Mugagabe” antzerki zirkuituak pare bat geldiune egingo ditu Uribe Kostan, Erandion eta Urdulizen hain zuzen. Urriaren 31n arrastiko 07:30ean Josu Murueta kultur aretoan izango da lehenengo hitzordua Erandion, bi euroren truke, bertan Gilkitxaro taldeak etxebizitza eskubidearen inguruko *Honolulu, leku bat* emanaldia aurkeztuko du. Gainera, Olaf Kehler artistaren *La jaula* ikuskizunagaz gozatzeko aukera egongo da; zirkuituak antzerkiaz gainera, pintura, dantza, bideo-sorkuntzak e.a. jorratzen dituelako.

SANTIAGORA BIZIKLETAZ HELDU DIRA 24 ORDUTAN

Done Jakue bideko ibilbideetako bat jarraituta, Erandioko Txirrindulari Elkarte txirrindulariek txandaka 24 ordutan Erandio eta Santiago lotzea lortu dute. Guztira 650 kilometro egin dituzte, eta martxaren helburua txirrindularientzat segurtasun handiagoa eskatzea izan da. Horrez gainera, bizikletaren erabilera ere sustatu gura izan dute.

Zure publizitatearen
Zure publizitatearen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Basolanak

Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Lorategi zainketa
DEITU!

• Zuhaitz landaketa
• Inausketak
• Iberiak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

LUBERRI
Basolanak S.L.

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54
www.arlan.biz

EGUNKARIA AUZIKO HITZALDIA KULTUR ETXEAN

Meñakoz alkarteak Egunkaria auziari buruzko hitzaldia antolatu du urriaren 30ean, barikua. Hitzordua arrastiko 07:00etan izango da Kurtzio kultur etxe barrian, Mendieta kaleko 11. zenbakian. Berbaldi horregaz, herritarrak auzi horri buruz informatu eta Egunkariako auziperatuei alkartasuna adierazi gura diete Meñakoz alkarteko lagunek.

OSASUN ETXEAK BERE ZERBITZUA HOBETUKO DU

Sugurdialde kaleko Osasun Etxeak herritarrei eskaintzen dien zerbitzua zabaldu eta hobetuko du gaur egungo obrak amaitu ostean. Eraikineko sotoan dagoen lekua aprobetxatuz, kontsulta, bilgeti, fisioterapia eta birgaitze gimnasia gelak egingo dituzte, besteak beste. Azken urteotan herriko emakume ugari egindako eskaerari erantzunez, erditze aurreko gimnasiarako gela ere egongo da Osasun Etxe barrutuan (gaur egun udal igerilekuetako gela bat erabiltzen dute).

**TURISMO BULEGOEK 7.000
KONTSULTA JASO DITUZTE**

Krisiak ez ditu Sopelako turismo bulegoak hustu. Are gutxiago, 7.000 bisita baino gehiago jaso dituzte udako hiru hilabetetan. Iazko uda denboraldiagaz alderatuz, 1.200 bisita gehiago jaso dituzte aurten. Turismo bulegoa urte osoan egoten da zabalik.

PLASTIKOZKO POLTSEN AURKAKO KANPAINA

2010. urte nasierarako plastikozko poltsen erabilera gutxitu edo desagerrarazi gura du Uribe Kostako Mankomunitateak. Kanpainan parte hartuko duten komertzioakaz alkarlanean, patata-fekulaz egindako poltsak atarako dituzte, biodegradagarriak eta konpostagarriak direlako. 350 bat komertzio kanpainan parte har dezakela uste du Mankomunitateak.

Saharan nagusien egoitza



Herritarren oinarritzko beharrak asetzeko helburua dauka naqusien egoitzak

Fatma Mohamed Fronte Polisarioko ordezkariak jaso du Sopelako Udalak emon barri duen 40.000 euroko dirulaguntza. Horregaz Dora dairan 500 pertsona ingururi zerbitzua emongo dion nagusien egoitza eraikitzea posible izango da. Egitasmoa Nuyum elkarte sopoloztarraren alkarkidetzagaz egin dute, eta lanak urte akabuan amaituta egotea aurreikusi dute.

Dora dairan horrelako gune bat eraikitzea ezinbestekoa ei zen. EAJko udal taldeko bozeramaile Gonzalo Garcia Martinek adierazi zuen legez,

“égitasmoa abian jartzea beharrezkoa zela ikusi zen biztanleriaren sektore horrek ase gabeko beharrak zituelako”. Gunearen eraikuntza eta kudeaketa sahararrek eroango dute, euren beharrianen arabera. Udal ordezkaritza bat abenduan joango da Dora dairako egoitzaren egoera zein den ikusteko.

Fronte Polisarioko ordezkariak bihotzez eskertu zuen “*Udaletik eta herritarrengandik jasotako laguntza*” eta “*NBE-k Saharako autodeterminazio eskubideari buruz kaleratutako txostenak errespetatzeko*” eskatu zuen. ○



Plaza Beltzako hainbat kide, Larrabasterrako lokalean

Korrontearen aurka joatea eta proiektu autogestionatua aurrera eroatea ez da erronka erraza egungo globalizazio garaietan. Orain dela hiru urte sortutako ideia utopikoa errealitate bihurtuko dute azaroaren 6an Plaza Beltzako lagunek. Arrastiko 19:00etan hasiko den aurkezpenean, Larrabasterrako lokalaren ateari giltzarrapoa kendu eta *“kultura zein formakuntza bultzatuko duen herri liburutegia”* abiatuko dute.

2006 urtera jo behar dugu Plaza Beltza elkartearen lehenengo urratsak aurkitzeko: *“Igeltsera eta Ganebarri gaztetxeen desalojoen ostean, gazte asanblada desegin zen eta elkarteak sortzea erabaki genuen, lokal iraunkor baten beharra zegoela ikusi genuelako”*. Ideia horregaz, proiektu autogestionatu bat abiatu zuten eta lokala atontzen ibili dira azken urteotan: *“Materiala biltzeaz gain, herriko eragileekaz harremanak izan ditugu, herrian azokatxoak antola-*

tu, jaietan parte hartu...".

Liburuak, bideoak, fanzineak, komikiak... maileguan hartzeko aukera izango da liburutegian: *“Bazkidetza egitea debalde izango da, hemen izango dugun material gehiena lez”*. Herri-mugimenduek euren materiala Plaza Beltzako lokalean eskuragarri jartzeko aukera izango dute, eta liburutegiko bilduman gai soziopolitikoak landuko dituzte nagusiki: *“Idazle konprometituen lanak izango ditugu, bertsio ofizialek kanpo*

**« Formakuntza bultzatzea
izango da gure
helburuetako bat»**

bizi direnak". Eragile ezberdinek bertan biltzeko aukera ere izango dute.

Era berean, kultura produktu moduan ulertu beharrean, formakuntza bultzatzen gura dute kulturaren bitartez: “*Gizartearen desideologizazioaren aurrean, eztabaidak bultzatuko ditugu, bertatik urteten diren ideiak garatzeko*”. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS



• *Hezkuntza integrala*
urte 1etik 18ra artekoa

• *Irakaskuntza eta hezkuntza*

• *Informazioa eta partaidetza*

• *Eleaniztasuna*

• *Espenientzia eta barnikuntza*

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIK
Taberna

Benteng 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 28



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

XVIII PERRETXIKO BILKETA
ETA ERAKUSKETA

Perretxiko denboraldiagaz batera Uribe Kostako herri askotan urteerak eta erakusketak antolatzen dira. Gorlizkoari lekukoa hartuta, azaroaren 8an Gorosti Elkartek perretxiko erakusketa egingo du Sabino Arana kalean, goizeko 10:00etatik aurrera. Urtero legez, aurreko egunean goizeko 8:00etan berangoztarrek urteera egingo dute Sarriara. Hamaiketako ostean, 13:00etan herri bazkaria egingo dute. Izena emoteko zerrenda Nebarrebak tabernan egongo da, eta ekintza guztiak debalde izango dira. Gainera, domekan, 13:00etatik aurrera 300 perretxiko mota baino gehiago dastatzeko aukera izango dute bertaratzin direnek. Ba al daukazu plan hoberik?

ZORAMENEZKO
UDAZKENA GAZTELEKUAN

Ikasturtea gogotsu hasiko dute Berangoko gaztetxoek. Urtero legez Gaztelekuak egitarau oparoa prestatu du, “Zoramenezko udazkena”ren baitan. Urriko zein azaroko bariku guztietan, Gaztelekuko ohiko ordutegiaz gainera, *Berango Gauak* antolatu dituzte gaueko 08:00etatik 11:00ak arte. Urriaren 30ean, gainera, Halloween dela aprobetxatuz, beldurrezko jaia egingo dute eta Gaztelekuan bertan lo egiteko aukera izango dute gaztetxoek. Azaroaren 6an sumo lehiaketak egingo dituzte Umore Horiaren jaiaren baitan. Hurrengo barikuan, euritakoa behar-beharrezkoa egingo zaigu, karaokean ibiliko dira-eta berangoztarrak.



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendak) T: 490 01 87
48990 GETXO



AIXERROTA BHI
BATXILERGOAK • TEKNOLOGIKOA
• NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTERO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Javier Fuertes *Txapas* > Troka Abenturako gerentea

“Prozesu luzea izan da, baina ho-
bekuntza nabarmenak lortu ditugu”



Javier Fuertes *Txapas*

Uztaillean jakinarazi zieten Troka Aben-
tura enpresako lagunei ISO 9001-2008
ziurtagiria lortu zutela. Turismo aktibo-
aren esparruan, horrelako ziurtagiria
lortu duen Euskal Herriko lehenengo
taldea da. Esfortzu handia eskatu badie
ere, oso pozik daude lortutako emaitza-
gaz. Kudeaketaren bikaintasunagatik
lortu dute izendapena.

—Zer egin behar izan duzue ziurtagi-
ria lortzeko ?

—Prozesu luzea izan da. Enpresa barru-
an ditugun prozedura guztiak idatzi
behar izan ditugu, gauza guztiak zelan
egiten ditugun azaldu. Horretarako
hiru formatu ezberdin daude. Pertsona
edo talde batek zerbitzua kontratatzen
duenetik irtetzen den arte ematen ditugu
pauso guztiak deskribatu ditugu.
—Zergatik uste duzue lortu duzuela
izendapena?

—Guk kalitatearen aldeko apustua egin
dugu beti. Esparru guztiak ondo men-
peratzeko garrantzitsua da.
—Zer suposatuko du ziurtagiriak?
—Barrura begira, hobekuntza ikaraga-
rria izan da. Langile guztiek uneoro zer,
zelan eta zertarako behar egin behar
duten arautu dugu. Adibidez, istripu
bat egonez gero, horren aurrean zer egin
zehaztu dugu. Dena kontrolpean dau-
kagu. Kanpora begira, bezeroen gogo-
betetze maila hobetu dugu.

«Langileek uneoro zer,
zelan eta zertarako egin
behar duten arautu dugu»

—Aurrera begira zer asmo duzue?
—Gure kasuan, kalitatea lantzea garran-
tzitsua da. Laster Kalitate Q-a eskuraga-
rri egongo da gure esparruko enpresen-
tzat. Datorren urterako hori lortzea
espero dugu. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

BASTARTEA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 129



TXIBERRI

TURQUESA
C/ Bidebarrieta nº2 Junto a metro Las Arenas

94 657 69 17
WWW.NOVIASATURQUESA.COM

2010EAN AMAITUKO DUTE
URDULIZKO HILERRIA

Datorren urte amaierarako bukatuta egongo den Urdulizko hilerri berriak 7.727 metro koadroko azalera izango du. Atxarte harrobi zaharrean kokatuta egongo da, Mendiondo auzoan, eta Elortza auzoko gaur egun hilerria ordezkatzuko du. Diseinu barritzailea izango du eta natur paisaian integratuta egongo da; harrobiaren hegaletako zuloak aprobetxatuko ditu. Instalazioetan 320 ehorzketa egin ahal izango dira. Bi solairuko eraikina izango du: goiko solairuan kapera egongo da eta behekoan, erdi lurperatuta egongo dena, hezurtegia. Errautsak uzteko 60 unitaterentzako lekua izango duen sei altuerako blokea izango du. Kanpo aldean aparkalekua egongo da. Proiektu horregaz, zerbitzua emateaz gain, Atxarteko harrobi zaharraren ingurua leheneratu gura dute, ingurumenari onura ekarriz. 1.341.373 euroko kostua izango du.

SAHARAR HERRIAREKIN
ELKARTASUNA LEMOIZEN

Sortu berri den Basordaportu Kultur Elkarteak Saharar herriarekin Elkartasun Jardunaldiak antolatu ditu Lemoizen urriaren 24rako eta 25erako. Bi egunotan zehar, argazki, tresna eta saharar jantzi tradizionalen erakusketa egongo da ikusgai Armintzako Kultur Etxean, 12:00etatik 15:00ak arte. Horrez gain, hilaren 24an, *Sahara no se vende* film emanaldia egingo dute 17:30ean eta ondoren hitzaldia emongo du Saharako lagun batek. Hurrengo egunean, Saharar herriarentzako janari bilketagaz hasiko dira.

PLENTZIA

Plentziako kaiaren historia batu du M.Pilar Roperok



Plentziako portuko gorabeherak bildu ditu Roperok liburuan

Marinelen joan-etorrien zaindari fide-lak izateaz gain, balore ekonomiko zein historiko handiko txokoak izan ohi dira portuak. Plentziakoa arraina eraldatzeko industriarako, ontzigintzarako eta mer-kataritzarako erabili da, besteak beste. Maria Pilar Ropero historialariak *Estudio historico del puerto de Plentzia* lana kale-ratu du Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz. Garai oparoetan zein krisi garaian bizita-koak kontatu ditu 273 orrietan zehar; baita Nautika Eskola eta San Pedro

kofradia bezalako erakundeen gorabe-herak ere.

1991. urtean Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzak Bizkaiko portuen inguruko ikerketa lana egiteko eskatu zion Aranzadi elkarteari. Azken horien bitartez heldu zitzaion aukera Roperori. Bi urte eman zituen dokumentuak bil-tzen eta 1993an bukatu zuen lana. Orain bi urte, lana publikatzuko zutela jakinarazi ziotenean, berrartu eta azken urteotako datuak gehitu zizkion. ○

Urr. 19 - Aza. 08

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

MUSIKA

LEIOA

► **Egschiglen talde mongoliarra.**
XX. Musika denboraldiaren barruan. Urriaren 23an, 21:00etan, Auditoriumean.

GETXO

► **Primavera children’s choir.**
Aste koralaren barruan. Urriaren 27an, 19:30ean, El Redentor elizan.
► **Swedbank chamber choir.**
Aste koralaren barruan. Urriaren 30ean, 19:30ean, El Redentor elizan.

ZINEMA

GETXO

► **Zine kluba. “Gran Torino”.**
Denboraldiaren hasiera. Urriaren 23an, 22:00etan, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan.
► **Haur zinea. “Up”.** Urriaren 25ean, 12:00etan eta 17:00etan, Andres Isasi Musika Eskolan.

LEMOIZ

► **Sahara no se vende filmaren proiektzioa.** Urriaren 24an, Armintzako Kultur Etxean. Ondoren, te dastaketa.

PLENTZIA

► **Perretxikoen mundua dokumentalaren proiektzioa.** Urriaren 29an, 19:00etan, Goñi Portalen.

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Kubako emakumeak.**
Urriaren 28a arte, Algortako Kultur Etxean.

Herri indigenei buruzko solasaldiak egongo dira

► **Jardunaldiak**
Boliviako kultura ezagutzeko aukera
Hego Amerikako herrialde horren ohiturak eta bizimodua ezagutzen ez dituenak urriaren 19tik 31ra aukera paregabea izango du. Eusko Jaurlaritzaren “Liburutegiak topaleku” egitasmoaren barruan Getxoko Kultur Etxeak Boliviari buruzko jardunaldiak antolatu ditu, Acsabol, Berdintasuna eta Circulo Solidario elkarteen lankidetzagaz. Besteak beste, hurrengo ekintzek osatzen dute egitaraua: dantza tipikoen proiektzioa eta ikastaroa, Mikel Arrazola argazkilariaren erakusketa, Boliviako ipuinak eta askaria, Mikel Txueka eta Amets Arzallusen hitzaldia, dantza ikuskizuna, jantzi erakusketa, eta “*Cuestión de fe*” filmaren zein “*El estado de las cosas*” dokumentalaren emanaldiak.

• **Non:** Algortako Kultur Etxean • **Noiz:** Urriaren 19tik 31ra

► **Venezia taldearen akuarelak.**
Urriaren 30era arte, Erromoko erakustaretoan.

SOPELANA

► **Txotxongiloen mundua.** Urriaren 19tik 30era, Kurtzio Kultur Etxean.

LEMOIZ

► **Saharako argazkiak, tresnak eta jantziak.** Urriaren 24an eta 25ean, Armintzako Kultur Etxean.

ANTZERKIA

BARRIKA

► **Musika tresnen fabrika.**
Sointek taldea. Umeentzat. Urriaren 24ean, 12:00etan udaletxean.

LEIOA

► **Kri, kra, kro** antzerki familiarra. Teatro Paraiso. Urriaren 25ean, 12:00etan, Auditoriumean.

URDULIZ

► **Metidas en harina.**
La Ressistens konpainia. Urriaren 30ean, 20:30ean, Kultur Etxean.

ERANDIO

► **Honolulu, leku bat.** Gilkitxaro taldea. Urriaren 31n, 19:30ean, Josu Murueta aretoan.

BESTEAK

GETXO

► **Leioatik Berangora Algortan barren ibilaldia.** Getxoko toponimia ezagutzeko txangoa. Urriaren 24an, goizeko 10:00etan, Artatzako autobus geltokitik.
► **Indabada.** Urriaren 31n, Biotz Alai plazan. Tailerrak, dantza erakustaldia, bazkaria, ekitaldia, poteoa fanfarreagaz e.a.

BERANGO

► **Gasteizera urteera.** Nagusien Etxeak antolatuta. Urriaren 21ean.
► **Halloween gaua.** Beldurrezko jaiak. Urriaren 30ean, Gaztelekuan eta Ludotekan.

PLENTZIA

► **II. Txipiroi bowl txapelketa.** Rol jolasen lehiaketa. Urriaren 24an Goñi Portalen.
► **XXIX. Perretxiko erakusketa.** Azaroaren 1ean Goñi Portalen.

GORLIZ

► **Itsasargira urteera.** Ondare Jardunaldien barruan. Urriaren 24an, goizeko 11:00etan, Astondotik.

ERANDIO

► **Gure ondarea ezagutuz III. ibilaldia.** Urriaren 31n, 09:30ean, Altzagatik eta Astrabduatik.
► **Txakoli dastaketa.** Azaroaren 7an, 18:00etatik 21:00ak arte, Postetxe zaharrean.



[albuma]




Bizkaiko Zubitik

Europako Ondarearen Jardunaldien barruan, bisita gidatuak antolatu dituzte Getxoko eraikin esanguratsuenetako batzuk ezagutzeko. Bisitetako batek Bizkaiko Zubian hasi eta Areetako hondartzatik Mesedeetako Elizararaino hurbildu ditu hainbat getxohtar. Eurekaz batera mende hasierako lagun berezi batzuek egin dute ibilbidea. Hil amaiera arte bisitetan parte hartzeko eta herriko historia ezagutzeko aukera dago.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

Zezen plaza

Bizkaiko Zubiaren aurrean

Bizkaiko Zubiaren itzalpera zezen plaza bat eroan zuten Areetako kaira 1945. urtean. “Eroan” diogu, ez zutelako bertan eraiki. Villasana de Menatik ekarri zuten, Antonio Menchaca areetarrak erosi ostean. Zezen plazaren eraikuntza Silverio Fernandez Novalesen esku gelditu zen, eta plazaren kudeaketa Getxoko Nagusien Etxeari emon zioten. Zezenketez gainera, erromeriak, boxeo ikuskizunak eta beste emanaldi batzuk antolatu zituzten bertan. Gregorio Zarraga “Zarraguita” algortarrak eta Benito Navarrete “El clasico” areetarrak zezen plaza hartan toreatzeko aukera izan zuten. Baina garaiko ustezko toreatzailerik famatuena ekarri bazituzten ere, zezen plazak ez zuen arrakastarik izan, etekinik sortzen ez zuelako. 1946an El Escorial-eko Udalarik 280.000 pezetatan saldu zioten, Menchacari kostatu zitzaionaren bikoitzagatik. Areetan egoteak plazaren “cache”-a handitu ei zuen, nonbait.

[berbetan]

Idoia Mendiak (Bilbo, 1965) Zuzenbide ikasketak egin zituen Deustuko unibertsitatean eta Nazioarteko eta Europako Harremanetan graduondokoa eskuratu zuen Amsterdamen. Gaur egun honetan ez badihardu ere, Bilbon abokatu bufeta dauka. 1993an egin zen PSE-EEko afiliatu eta 2002an lortu zuen parlamentari legez lehenengo ardura, Nicolas Redondo Terrerosen ordezkot moduan. Ordutik, Patxi Lopezek utzitako hainbat kargu bete ditu legebiltzarreko batzordeetan, aurten EAEko Justizia eta Herri Administrazioiko Sailburu eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile izendatu duten arte.

Idoia Mendia

Barrikako (ez-)hondartzatik Lakuara

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Komunikabideren batek goraipatu du abertzaleakaz dituzun harremanak eta euskara jakitea oso lagungarri izan zaizkizula bozeramailetza lortzeko.

—Oro har, nire sendia abertzalea da. Aitite ANVkoa zen, baina frankismo ostean EAJri emon zion botoa. Harreman onak ditut legebiltzarrean alderdi guztiakaz, lagunak batzuk, EAJn oso onak. Neu bozeramaile aukeratzea, Patxi Lopezen apustu handia izan da: ez nintzelako pertsona publikoa, baizik aurpegi barria eta gobernuan gazteena. Zuhur eta bigarren mailan mugitu izan naiz beti, komunikabideetan ez nintzen asko agertzen; ETB1 eta Euskadi Irratian noiz-behinka, ez dagoelako horrenbeste jende alderdian euskara dakienik. Euskara jakitea funtsezkoa izan da. Dena dela, gero jakin dut iraganean Jaurlaritzak bozeramaile elebakarrak izan zituela, baina orain arraroa litzateke. —“PSEko ikastolako alaba” izengoitia ere ipini ei dizute. Harri lezake horrek?

—Ez dut uste harrigarria denik. Euskara jakiteak ez du inor eroaten ideologia bat izatera; hori da euskararen normaltasuna. Helburu hori lortzeko denok borrokatu

behar dugu. Euskara gure hizkuntza da, ezin da politika egin euskaragaz. Nire garaian ikastolan ikastea oso arraroa zen, oso gutxi ginen. Aurrekoagaz lotuz, PSEn oso zaila da nire perfil, adin eta esperientzia politikoko norbait topatzea.

—Bozeramailetza hasi eta gixira okerrak zuzendu behar izan dituzu. Hasibarriaren urduritasuna ala barkaezina?

—Lehenengo prentsaurrekoan esan nuen normala izango zela hanka-sartzeak izatea. Ez baditugu, “superwoman” gara; neu ez naiz.

“Euskara jakiteak ez du inor eroaten ideologia bat izatera; ezin da politika egin euskaragaz”

Hanka sartuz gero zuzentzen dut, ez dago arazorik. Horrela izan beharko luke sailburu eta gobernu bezala ere: zerbait txarto egiten bada, aitortzea, zuzentzea, ahal den heinean, gure beharra da. Politikan zerbait aldatu behar bada, hori da: zelan egiten dugun politika, zein politika egiten dugun ere bai, baina zelan garrantzitsua da. Politikariok asko alda-

tu behar dugu, hiritarrak oso aldenduta ditugulako. Lan gogorra dugu!

—Senarrak zaintzen ditu orain semeak?

—Gitxi! (barreak). Guk daukagu buruan dena: jogurtak amaitu dira, arropa, zein egunetan duten soinketa edo haur ekintzak, zelan prestatu motxila... Orain gehiago saiatzen da laguntzen, berak ere politikan lan handia daukan arren (zinegotzia Bilbon, alderdiaren Euskadiko zuzendaritza-batzordean). Baina euskaraz ez dakienetz etxerako lanak niretzat dira!

—Benetako kurtso politikoa udagoienera hasten ei da. Orain hasiko da PP estutzen ala aurrekontuak adosterakoan?

—Hurrengo 3-4 hilabetetako erronka nagusia aurrekontuak aurrera ateratzea da. Horretan gure bazkide nagusia PP dela uste dut. Akordioa egin dugu legebiltzarrera eroateko aurrekontuen ezohiko

legea, baina aurrekontuak eurak ere eroan behar dira. Lehenenik PPgaz berba egingo dugu; EAJgaz ere harremanetan gabiltza. Oso garrantzitsua litzateke denok aurrekon-tuen alde agertzea, edo abstentzioaren bidez babesa emotea, hiritarrentzat irudi ona. Gero ezberdintasunak egongo dira, bakoit-zak berea defendituko du; normala. Oposizioan daude eta horrelakoetan ardu-ratsu jokatu behar da, baina norbere eremua ere mantendu. Baina krisialdian gaude eta kontu benetan serioa da. Denok utzi behar ditugu gure desberdintasunak alde batera, eta mahai gainean ipini garrantzitsuena dena: neurri ekonomikoak eta zerbitzu publikoak mantentzea.

—**Blogean Mexiko 70 urtez gobernatu zu-en PRIgaz alderatu duzu EAJ. PRIk senatu hauteskundeak irabazi ditu barriro.**

—Orain gobernuan gaude, hurrengo lau urtetan beste bat egon liteke. Garrantzi-tsuena aldaketa izan da. Bereziki jendeak Euskadin nabari dezan ez dela ezer gertatzen beste alderdi batek gobernua eduki-tzeagatik, mitoa apurtzea garrantzitsua izan da; baita EAJrentzat ere. Denentzat da garrantzitsua hori, etorkizunean beste alder-di ezberdin batzuk egongo direlako; alder-dioi ondo datorkigu noizbehinka hautes-kundeak galtzea, gobernutik kanpo egotea. Guretzat Espainian oposizioan egotea gauza ona izan zen; alderdia zaharbarritu genuen, gauza desberdinak egin...

—**Zelan doa Kontzertu Ekonomikoa?**

—Blindatzearena? Laster eztabaidatuko da Kongresuan. Gure jarrera argi dago: Madrilen kontzertua blindatzea; etengabe auzitegietan tira-biran ez egotea lortzea. Erronka nagusiena Europa izan zen, han argi geratu zen baduela lekua. Espainian tira-biran ez jarraitzea da geratzen zaiguna. —**Euskal langileen gehiengoa batzen duten sindikatuek planto egin diote Jaurilaritzaren mahaiari.**

—Sindikatu bi geratu dira kanpoan, aber-tzaleak. Eskua zabalik uzten diegu, baina ez dugu izango etengabe sartu-irtenean bada-biltza; estrategia negatiboa litzateke,

Nafarroan jazo legez, ez dugu hori bizi gura. Mahaitik dagoeneko akordioak irten dira, oso lagungarriak izango dira krisialditik ate-ratzeko, enpresarien eta sindikatuen eskutik datozelako. Horiek akordioak lortzea oso garrantzitsua da, edozein garaitan. Azken gobernuak ez zuen interesik izan mahai horiek martxan jartzeko; gogoan dut iraga-nean izan zirela. Eta oso garrantzitsuak dira

“Mitoa apurtzea garrantzitsua izan da, nabari dezan ez dela ezer gertatzen beste alderdi batek gobernatzeagatik”

lehiakortasuna eta bermatzeko. Baikorra naiz, emaitzak lortu ditugulako; gehiago lortuko dira.

—Urtarrilean hainbat kontu martxan ipi-niko ei duzue, adib.: **Laguntza sozialen politika barria eta Bulego judiziala (harrera osoa euskaraz lukeena).**

—Bulegoaren esperientzia pilotuak baditu-gu dagoeneko, esaterako Getxoko Auzi-tegian. Legea da indarrean sartuko dena, orduan hasiko gara “bulegoen egutegia” martxan jartzen, gune txikietatik hasi eta handienetaraino, azkena Bilbo izanik. Ha-lere, Euskadin, beste erkidegoakaz alderatu-ta, horretan ondo gaude, baina hobe de-zakegu. Izapideak arinago egingo dira eta, elebidunaren ikuspegitik, lortuko dugu ia prozesu osoa euskaraz izatea, pauso ga-rrantzitsua. Laguntza sozialena: legebiltzarre-

“Eskumen, ez garrantzitsuena, baina bai potoloa espetxeena da, pausoak emoten gabiltza”

an lege barria onartu genuen, hori da mar-txan ipiniko dena. Laguntzak hobeto antola-tuko dira, dirua hobeto gastatuko da. Erakunde arteko batzordea martxan da: saila, foru aldundiak eta Eudelegaz; euskal sistema eraikitzeko lanean dabilta, denak bera egiten ibil ez gaitezen, gastu bikoiztea saihestuz.

—**Justizia aipatuta, Durangoko zinegotzi batek (EAJ) adierazi zuen ez dituela euskal preso politikoen aldeko elkartasun argaz-kiak kenaraziko. (Elkarrizketa hainbat era-baki hartu aurretik egin zen).**

—Barne sailburuak adierazpenen bat egin du. Ez dakit zergatik sartzen den EAJ; agian zinegotziaren jarrera pertsonala da, be-harbada alderdiarena. Landu behar dugu,

“Ezin dugu ezabatu EAE, Nafarroa eta 3 probintzia frantsesak euskaldunak direla, hori errealitate kulturala da”

askatasun eremuak lortzeko garrantzitsua da. Ez dut gehiagorik esango.

—Estatutua guztiz betetzeko lan egingo duzuela esan duzue, eta espetxeen eskume-na aipatu. Ez da sinesgaitzegia?

—Hilaren 25ean beteko ditu 30 urte Esta-tutuak, oraindino bete barik dago; helbu-rua, betetzea da. Eskumen, ez garrantzitsu-ena, baina bai potoloa, espetxeena da. Espetxe erakundeen ordezkariagaz harrema-netan gaude, pausoak emoten. Iraganeko jarrera, “dena emoten didazu orain, edo ez dut gura”, ez da gure estrategia, pausoka joa-tearen alde gaude. Lehenik espetxeen osa-sun-hezkuntza zerbitzuak transferituko dira, gero gutxika pausoak emoten joan. Euskal espetxeetan asko egin daiteke, “ta-ran-tantan” bat behar dute.

—**Hezkuntzako sailburu Celaak esan du:**

“Eskumen, ez garrantzitsuena, baina bai potoloa espetxeena da, pausoak emoten gabiltza”

“Euskal Herria izendapena ez da curriculu-metik kenduko; Euskal Herria izan badela-ko, euskararen herria, 7 lurraldek bat egiten duten euskararen eremua, euskaldunok par-tekatzen dugun kultura eta hizkuntzarena; Euskal Herria hizkuntzaz eta kulturaz ari-tzeko erabiliko da, Euskadi errealitate sozio-politikorako. Kontrajarria dirudi.

—Ez, normala da. Euskal Herria termino bezala Gernikako Estatutuan agertzen da, ez dakit zergatik batzuek esaten duten desagertu egin behar duela, terminologia historikoa da, autonomia estatutuan dago, termino zuzena eta legala da. Bereizketa egitea alde politikoaren eta kul-turalaren artean normala da; Nafarroak bere erakunde propioak dauzka, errespe-

“Ezin dugu ezabatu EAE, Nafarroa eta 3 probintzia frantsesak euskaldunak direla, hori errealitate kulturala da”

tatu behar dugu Nafarroako jendea. Guk EAE dugu, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa gara; hori da umeei irakatsi behar diegu-na, bestela ideia erratuak egon litezke. Baina, ezin dugu ezabatu EAE, Nafarroa eta 3 probintzia frantsesak euskaldunak direla, hori errealitate kulturala da. Ez dut arazorik ikusten, adib. germaniar herriak: Austria, Alemanía eta Suitzaren zein Italiaren alde batzuek alemaneraz berba egiten dute, errealitate politiko ezberdinak dira, eta jendeak naturaltasun osoz onar-tzen du. Beharbada hemen behar duguna da normaltasun handiagoa, eta uste dut urteakaz lortuko dugula.

—**LH5ko ikasleek jasoko dituzten nano ordenagailuak eztabaidagai dira, software librearen eta euskararen auzia oinarri.** —Daroadan Administrazio publikoko sailean bada Telekomunikazio-Informati-ka Zuzenbidea alorra, hor finkatzen dugu zeintzuk diren gobernuaren teknologia pa-rametroak. Lanean gabiltza, baina argi du-gu ezin dugula emigratu, egun batetik bes-tera, software pribatutik librerá, baina pau-soak emon behar dira, biak orekaturik egoteko. Nik, behintzat, balantza, librea-ren aldeko sustapenerantz eroango nuke. Euskadin, enpresa on asko dago, euro bat sartzen badugu tokiko enpresetan, input gehiago lortuko dugu, euro hori AEBetan dagoen enpresa batean sartzen badugu baino. Neutraltasun teknologikoaren alde

gaude, 2007ko legeari loturik. Gero, sail bakoitzak bere lan modua du; Hezkuntza-koek teknologia erosketa euren aldetik, kanpoko bategaz, egin dezakete (hala egin dute), ala nire saileko enpresa bategaz. Baina konpromisoa badutela uste dut, hezkuntzarako software libreko progra-mak egiteko lan-taldea abiatu dute. Azken Jaurlaritzak ez zuen lan handirik egin soft-

“Ezin dugu ezabatu EAE, Nafarroa eta 3 probintzia frantsesak euskaldunak direla, hori errealitate kulturala da”

ware librearen alde! Oinarrizkoenetik hasi behar dugu, garrantzitsua iruditzen zait neutraltasun teknologikoa eta gure enpre-sei aukera ematea.

—**Blogean diozu: “Demokraziaren han-ditasuna hauteskundeetan herritarrok dugun boterean datza”. Alderdien hartu-emanak baino boteretsuago gara, bai?**

—Demokrazia parlamentarioa dugu, ez presidentzialista. Akordioak, gehiengoak egiten dira, hori ere badago demokrazian, saihets ezina. Gehiengo absolutua ez izate-ak akordioak bilatzea dakar, batzuk gai dira, beste batzuk ez; Halere, mugitzen direnean, hiritarrek aldaketak lortzen dituzte, adib.: Espainiako 2004ko hautes-kunde orokorrak, ia inoiz ez da gertatzen gehiengoa izanik alderdi batek galtzea; edo Obamagaz jazotakoa, jendeak zerbait esan behar duela sentitu du, esan eta gauzak aldatu ditu.

—**Ezker Abertzalea 2011ko hautetskun-deetan ez dela egongo ziurtatu duzu.**

—Interpretazio zabalegia da hori. Esan nuen aurrebistan ditugun hauteskundeak urte 2 barru direnez, oso zail ikusten duda-la, gaur egun, Ezker Abertzaleak pausoak emotea hauteskundeetan egoteko. Baina, gobernu batek, ez Espainiakoak ezta Jaurlaritzak ere, ezin du esan nor egongo den eta nor ez, auzitegiek erabakitzen dute hori. Edozer jazo daiteke, ikusiko dugu, baina oso zaila ikusten dut. ○

BARRIKAN ZINEGOTZI 2003TIK 2007RA

—**Lakuako bulegotik jarritzen duzu Barrikako eguneroko nahasia?**

—Barrikako urteak benetan onak izan dira. Udal politika oso polita da, asko hihatzen badu ere. Azken aldian EAJ gutxiengoan zegoen, udalbatzak arrastietan egiten ziren, herritar piloá hurreratzen zen, parte hartze handia egoten zen. Oso polita! Pena handia eman dit uztea. Barrika momentu klabe batean dago, gehiengo absolutuakaz egon da beti, baina legealdi honetan gauzak asko aldatu dira, ez bakarrik hor, Uribe Kostan orokorrean, gau-zak mugitzen dabilta, eta ona da aniztasuna ego-tea erakunde guztietan. Halere, Barrikan alkateak ez du nolabait onartu gutxiengoan dagoela, eta egoera horretan saiatu behar da akordioak lortzen, eta alkateagaz hori oso zaila da, ez beste zinego-tziakaz, oso zinegotzi onak daude EAJn. Nik uste, Auzitegi Gorenaren epaiak eta Barrikabasoren ara-zoak, nolabait behartuko duela oinak lurrean jartze-ra, akordioak ateratzera. Bestela, plan orokorra bertan behera lotuko da. 1.000 etxe edo eskatzen zuten, hori izugarrikeria da Barrika lako herri txiki batentzat, 1.400 biztanle inguru ditu eta asmoak biztanleak bikoiztu baino gehiago suposatzen zuen; horiei zerbitzuak eskaintzea, zer? Ez dago azpiegiturarik, dena dago egiteko! Horregatik ere momentu polita da, akordio zabala lortzen badute, gehiengoaren konplizitatea, denon artean Barrika herri polita eta zerbitzu onekoa egin dezakegu. Ikusiko dugu nola amaitzen den dantza hau! Bai nik baita orain dagoen zinegotziak ere adierazi dugu prest gaudela akordioak egiteko Goierrin zen-bat etxebizitza egitearen inguruan, zenbat publiko eta pribatu, udaletxe eta eliza aldekoaz ere negozio dezakegu, baina ez dugu hitz egingo, ez dugulako ezer ere nahi, Barrikabasoz ezta erresidentzia alde-az; hor eraikitzearen aurka egon naiz beti, zergatia ondo adierazten du epaiak orain. Oposizioko beste alderdiak ere bat ei datoz, gehiengoa gara, badau-kat konfiantza!

—**Hondartza katalogotik kentzea biziki defendi-tu duzu. Jendeak joaten jarraituko du, arriskua ez da handituko?**

—Arraroa da alkateak kontu horretan ipini duen ahalegin handia, Barrikan beste bi hondartza ere badirelako, inoiz sustatu ez direnak. Beti agertu dut beste biak bultzatzeko asmoa, espero dut hurren-go udan horietan ere zaintza eta zerbitzuak egotea, Muriolan egongo ei direla entzun dut. Gainera Kostakoek Muriola hobetzeko lanak egiteko asmoa dute. Bestea deskatalogatzearen alde egon nin-tzen, ez dudalako uste hondartza denik. Egia da jendea badoala, baina Naranjo de Vulnesera ere! Bagoaz, baina badakigu arriskutsua dela. Ezin duguna da, hondartza-zainak eta zerbitzuak dau-delako, segurua delako ideia faltsua transmititu. Agian 10 urte pasako dira eta harririk ez da jausiko, baina nork bermá lezake hori? Nik ez. Nioena zen: “ez egin hainbeste ahalegin hor hondatza-zainak jartzen, jar itzazu batzuk Muriolan”, bada ez, denak han. Garrantzitsua iruditzen zait beste zerbitzu ba-tzuk eskaintzea, eta beste hondartza batzuk edu-kitzea eta bultzatzea Barrikan!



Mundua ikusteko era bat


UK-ko zenbaki honetako 14. orrian Gonzalo Iribarnegaray bidaiari getxoztarrari egindako alkarrizketa irakurri dezakezue. Horren albotik, Fotografia atal honetara, urriaren 22tik aurrera Satistegi tabernan egongo den *Tierra* bere erakusketaren argazkietako batzuk ekarri ditugu. Asia eta Afrikako irudi hauek mundua ikusteko duen modua erakutsi gura digu Iribarnegarayk. Izan ere, Lurra ez da bat eta bakarra; begiratzen duten begiek irudikatzen dute Lurra.

Argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**









I
Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 46
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKAK
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bideberr 27. behe solairua
ALGORTA
94 430 76 06

GARKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70 84

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Beldurra eta fantasia

Barriro jantziko da **zinez Donostia**,
urriaren 31tik azaroaren 6ra bitartean



James Whalen *Frankenstein* (1934) filmako pasarte bat islatzen du zinemaldiko kartelak aurten

Donostiako Zinemaldiaz gainera, bada beste zine jardunaldi interesgarriak Gipuzkoako hiriburuan; badaki Kontxako badiako hiriak beldurrez eta fantasiaz janzten, glamurrez gainera. Hala, 20. urteurrena beteko du aurten Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinema Asteak. Hilan gauean (urriak 31) hasiko da jaialdia eta azaroaren 6an emango du aurtengo azken hatsa. Sail Ofizialeko film luzeen lehiaketak eta film laburren lehiaketak, *Metal Hurlant* komiki aldizkariaren omenezko sailak (aldizkariak eragina izandako film mitikoak emango dituzte), lauzpabost erakusketek, umeei begirako film fantastikoen eskaintzak e.a. osatzen dute egitaraua.

Zinemaldiari *Vertige* (Abel Ferry; Frantzia) alpinismoko suspentse eta beldurrezko film ikusgarriaren estreinaldiak emango dio hasiera.

Clive Barker's Dread (Anthony DiBlasi; AEB/Erresuma Batua, 2009); *Grace* (Paul Solet; AEB/Kanada, 2009);

The House of the Devil (Ti West; AEB, 2009); *Infestation* (Kyle Rankin; AEB, 2009). Ikuslearen saria lortzeko lehiaturako diren filmak hurrengoak dira: *Mutants* (David Morley; Frantzia, 2009); *Pandorum* (Christian Alvart; AEB/Alemania, 2007); *Sword of the Stranger / Sutorenjia: Mukô hadan* (Masahiro Andô; Japonia, 2007); *Vampire Girl vs. Frankenstein Girl* (Yoshihiro Nishimura eta Naoyuki Tomomatsu; Japonia, 2009) eta *Viva la muerte! Autopsie du cinéma fantastique espagnol* (Yves Montmayeu; Frantzia, 2009). Egitarauari begira, beldurrezko zein fantasiatzko filmen zale bazara, ez dago zalantzarik Donostiara hurreratzea mereziko duela ziurtatzeko. ○

«70. hamarkadako Metal Hurlant komiki aldizkaria omenduko dute, zinean izandako eraginagatik»

pire Girl vs. Frankenstein Girl (Yoshihiro Nishimura eta Naoyuki Tomomatsu; Japonia, 2009) eta *Viva la muerte! Autopsie du cinéma fantastique espagnol* (Yves Montmayeu; Frantzia, 2009). Egitarauari begira, beldurrezko zein fantasiatzko filmen zale bazara, ez dago zalantzarik Donostiara hurreratzea mereziko duela ziurtatzeko. ○

Informazio gehiago:
www.donostiakultura.com/terror/2009

Tresneria martxan, ziztu bizian!

Durangoko Azoka dela ala ez dela, baina udagoienak, hostoak erorarazten dituen legez, **ugalarazten ditu musika nobedadeak**



Durangoko Azoka abenduaren 4tik 8ra izango da

Oraindino Durangoko Azokarako nahikotxo euri egin behar badu ere, hasi dira musika industriako lantegiak tresneria berotzen eta beharginak beharrean. Hala, urritik Azokara bitartean hainbat argitaletzek merkaturatuko dituzten, musika talderen zein bakarlariren, lan barriak zerrendatuko ditugu ostean.

Elkarrek iragarri dituenak hauek: Gari *16 lore*, Ruper Ordorika *Haizea Garizumakoa*, Betagarri *Bizitzari txistutika*, eta Jexusmari Lopategi, Xabier Abu-

rruza trikitilaria, Jean Mixel Bedaxagar eta Lain-en diskoak eta Pantxika Solorzanoren *Bilintx* (haur kantak).

Baga-Biga Musika Ideien otzaran datoz ondorengoan lanak: Etxe, The Uski's *Katuek bezala*, Mikel Urdangarin *Zubiak* eta Des-Kontrol *Aurrera begira*.

Gaztelupeko Hotsak bere teilatupean batzen dituen zigiluek hurrengo talde zein bakarlarien lan barriak babestuko dituzte: UEK, Norman, Flakutt, Bide Ertzean eta The Dirty Pink Ladies.

diskoak

Menu del dia
Garagardo Gura
Musikherria



2005. urtean txaranga batetik sortutako talde gasteiztarrak bere lehenengo diskoa kaleratu du, Euskal Herriko txoko ugaritan hamaika kontzertu eskaini ostean. Ska dantzagarri eta freskoa jorratzeaz gain, doinu latinoak, reggaea eta funky metala ere uztartzen dituzte, estilo ezberdinen arteko bilgune ia ezinezkoa eginez.

...arteraino
Iker Goenaga
Ez Dakienak Baleki



Zizurkilgo trikitilariaren laugarren lana. Oraingoan, ordea, berak sortutako Ez Dakienak Baleki zigiluagaz plazaratu du 13 kantaz osatutako lana. Grabaketan Mikel Markez, Gartzot Unsain, Alaitz Telletxea eta beste musikari batzuk izan ditu lagun. *Umea eta mapa* aurrerapen kantaren letra, bere aldetik, Joseba Sarriollandiak idatzi du.

U10
UEK
Gaztelupeko hotsak



Urtebeteko etenaldiaren ostean UEK-k disko barria atera du. Bilduma honegaz euren 10. urteurrena ospatu gura dute, eta azken urteetan jo dituzten kantaz gain, hiru kanta barri ekarri dizkigute. Gainera, Michael Jacksonen "Beat it" abestiaren bertsioa grabatu dute. 70. hamarkadako hard-rocka eta rock melodikoa lantzen jarraitzen dute lan barrian.

[musika]

etorri
eta
ikus!!

ORIXA

liburudenda

Algorri 15 (Asteak) (Asteak) (Asteak) (Asteak)
77 34 41 68 01
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkeztan
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

Uuribefm
fm 107.8
Gorliz Irratia

[liburuak]

Gandiagagaz, hausnartzen

Azken egunak Gandiagarekin

liburua aurkeztu du **Joxe Azurmendi**

“**Abiapuntua** ez da edonolakoa: *Bitoriano Gandiaga, poeta paregabea, Arantzazun fraidekide izana eta lagun bihotzekoa hiltzera doa. Hari bisitan joan eta, ezinbestean, adiskidearen bizitza eta lanak, izaera eta heziera, nahimenak eta sinesmenak hasi da errepasatzen, eta bere buruarenak ere bai*”. Berba horiekaz eza-gutzero eman dute Joxe Azurmendi (Zegama, 1941) filosofo eta idazleak aurkeztu barri duen *Azken egunak Gandiagarekin* (Elkar) lana. Zendu aurretik, poeta frantziskotar lagunagaz izandako elkarriketetan jasotako oharraz hasi zen liburua idazten orain 8 urte Azurmendi. Aurreko lanetan (besteak beste,

«**Naturaren poeta**»
frantziskotarraren obra eta sinesmenen gogoetak»

Demokratak eta biolentoak; Espainolak eta euskaldunak; Gizona abere hutsa da) jorratutako kultur, gizarte, ideologia, pentsakera, herri kontzeptuaren gaiei muzin egiten ez badie ere, azken liburu honetako bigarren zatian existentzia, fede, Jainko, heriotza, edota sinesmenen gaineko hausnarketaren bidetik abiatu da euskal saiogile ziztatzailea. Gandiagak horien inguruan zituen gomutei



Bitoriano Gandiaga (Mendata, 1928-Arantzazu, 2001)

tiraka (naturaren sentitzen zuen hark Jainkoa, historian baino), berak gogoan darabiltzan gogoetak azaltzen ditu zegamarrak, bere “lanik pertsonalena” den honetan. Alabaina, iruzkina atzetik aurrera hasi badugu ere, *Azken egunak Gandiagarekin* laneko lehen zatia ere gozagarri izan dakiok “naturaren poetaren” obra hobeto ezagutu gura duenari; izan ere, atal horretan mendatarren mundu poetikoa ulertzeko argibideak eskaintzen ditu Azurmendik. Filosofo gehienek legez, ez die beldurrik irakurberba-idazteko luzerei, hala, erakutsi du 500 orri batzen dituen lan honetan. ○

liburuak



Ez da erraza gizon on bat aurkitzea
Flannery O'Connor
Alberdania-Elkar

Hamar ipuinek osatzen du *Literatura Unibertsala* bildumaren barruan kaleratutako lan hau. Jatorri oso ezberdineko pertsonaiak nahastuko dira; guztiei iritsiko zaie bizitzan une bortitz bat, non egia ikusaraziko baitie. Horren aurrean, bakoitzak bere hautua egingo du.



Alzheimer y otras demencias
Slachevsky, Fuentes, Javet, Alegria
Txalaparta

Dementziak aurretik eskuratutako gaitasunen galera dira. Horiek sufritzen dituzten gaixoen senitarteko eta zaintzaileen egunerokotasuna errazteko gida-liburua da ondoko hau. Txileko Unibertsitateko lau irakasleek idatzi dute, psikologo bik eta neurologo bik.

[kirola]

Ibon Garate > palari profesionala (laster)

“Australiakoa oso polita izan da; Munduko Txapelketa jokatzeko neska bikotea sortu da”



Ibon Garatek 6 hilabete emon ditu Australian monitore, eta abenduan profesional mailan jardungo du

Ibon Garate algortarrak 15 bat urte daroaz palan jokatzeko, eta aurtengo abenduan joko du profesionaltasunak bere atea. 23 urteko palariak Asfedebi enpresagaz emongo ditu profesional mailako bere lehenengo pilotakadak; atzean lotu dira 8 urteagaz Algortan lehenengoz palari eragin zion egunak, eta Sopelako Pala Elkartean iragan dituen azkeneko 6 urteak. Abendutik aurrerakoak izango dira ziuurrik pilotakadarik gogoangarrienak. Gainera, urtarrik-ekaina artean pala monitore ibili da Australian Garate.

—**Zelako esperientzia izan da Australiakoa?**
—Squash-eko kantxetan hasi behar izan genuen, frontoia urruti eta eurite garaia zenez uriolak egon zirelako, frontoian ura 3 metroko altuerara heldu zen! Ezinezkoa zen han jokatzeko. Hilabete edo bi eman genuen kantxetan, gero, astean behin, frontoira joaten hasi ginen. Entrenatzaile ibili naiz, nire eginkizuna pilotari pare bat edo prestatzea, aurrera ateratzea zen; eta lortu dugu, neska bikote bat, Argentinan, laster egingo den Munduko txapelketan

jokatuko dutenak. Orain hemen daude, Munduko Pilota Batzarrak gonbidatuta etorri dira Bizkaira, eta eurekaz entrenatzen nabil. Ni ere Munduko Pilota Batzarraren bidez joan nintzen Australiara, soldata eta ostatua ordaindu didate. Oso polita izan da, jendea oso ondo portatu da nigaz, eskertzekoa benetan!

«**Oso polita izango zen nire profesional debuta lagun-taldeko Zulaikagaz egitea**»

—Eta abenduan goiko mailara.
—Hori da! Ia ba, hasieran oso gogorra izango da, maila horretakoek oso ondo jokatzen dutelako, eta astiro xamar ibiliko naiz. Espero dut, apurka-apurka, hobera egitea; hor ez daukat presarik.
—**Aurre egitea gustatuko litzaizukeen lehiakideren bat?**
—Bereziki, ez. Ametsa ere ez da, baina oso gogoko nuke maila horretan dabilen nire lagun-taldeko Erlantz Zulaikagaz izatea nire debuta, koadrila ere joan dadin... Oso polita izango zen! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda

350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

• MARKA GUZTIK
• 24 OREKUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETIKO GARANTIA
• 35 URTEZ ZURE ZERBITZUARI
• BITEBIA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasupe 18 - ALGORTA

M. Castrillo, J. Cerrato eta K. Fernandez > Erandioko bizilagunak

“Herri osoak parte hartu zuen kutsaduraren aurkako mobilizazioetan”

Badira ahaztezinak diren oroitzapen batzuk; eta itxiezinak diren zauriak ere bai. Urriaren 28an eta 29an 40 urte beteko dira Erandioko gertakizunetatik, eta Castrillok (M.C.), Cerratok (J.C.) eta Fernandezek (K.F.) oso ondo gogoratzen dute egun haietan gertatutakoa.

—Zelakoa zen Erandio 1969. urtean?
—(J.C.) Giroa guztiz grisa zen. Fabriketako keak egunero jasan behar genituen, eta ezinezkoa zen bizitza normala egitea.
—(M.C.) Jendeak kutsaduratik babesteko zapiak ahoan eroaten zituen, eta usainengatik fabrika ezberdinen hodeiak identifikatzen genituen: egun batean azufrea, bestean kobrea, hurrengoan burdina...
—(K.F.) Egunero zegoen kutsadura Erandion, bai goizean bai arrastian. Umeak arin-arin eroaten genituen etxera, airea arnas ez zezaten. Gero, etxean, pertsianak ixten genituen.
—Auzokideen mobilizazioek eztanda egin zuten 1969ko urriaren 28an, ezta?
—(J.C.) Mobilizazioak hasieran antolatutakoak ziren. Kutsadura handiagoa zen egunetan, 28an legez, auzokideak plazan alkartzen ziren eta protesta egiten zuten.
—(M.C.) Aste horretan errepresio gogorra izan zen Erandion, kutsadura jasanezina izan zelako eta auzokideak geldilotu ez zirelako. Urriaren 28an Bilbo-Areeta errepidea ebaki genuen eta horren ostean, trenbidera joan ginen, mozteko asmoz.
—Herri osoak parte hartzen zuen?
—(M.C.) Bai, trenbidean geundenok



Cerrato, Fernandez eta Castrillo Josu Muruetaren omenezko plazan

harriak botatzen genizkien, eta balkoietatik jendeak lorontziak, adreiluak, danatarik botatzen zieten. Hori, grisak tiroka hasi ziren arte.
—(K.F.) Ni etxean nengoen momentu horretan eta gure aita ohetik jaiki zen gertatzen ari zena leihotik ikusteko. “Tiroak dira, barrura sartu” esateko denbora baino ez zuen izan, buruan tirokatu baitzuten. Mediku bila jaitsi nintzen

“Leihotik burua atera eta nire aitari tiro egin zioten. Kalera urten nintzen mediku bila, ia-ia neu ere hil ninduten”

eta gutxigatik ez ninduten tirokatu ni ere, zapatila galdu nuen bidean. 15 egunera hil zen gure aita, ezin izango ditut egun horiek inoiz ahaztu.
—(M.C.) Nire kasuan, tiroka ari zirela konturatu nintzenean, trenbidetik alde egin eta Tartangara abiatu nintzen. Polizia bat atzetik etorri zitzaidan eta

hankan tiro egin zidan. Hortik ospitale-
ra eroan ninduten eta hasieran, Kontxiren aitagaz, Anton Fernandezegaz, egon nintzen. 8 egunetan ohean eskuburdinak jarrita egon nintzen eta poliziak ospitalean egon ziren egunero.
—Kalteordainik jaso zenuten erakundeetatik?
—(J.C.) Polizien biktimek oraindino ez dute aitorten ofizialik jaso. Hori lortze-

ko bidean urratsak emoten jarraituko dugu.
—(K.F.) Guri babesa auzokideek emon ziguten, bai animo aldetik bai ekonomikoki. Gobernadore zibila etxera deika ibili zen hasieran, eta polizia gure portaletik kentzeko eta gure etxera barriro ez deitzeko esan nion. ○

Erandioko gertakizunak > omenaldia egingo da urriaren 31n Astrabuduan

Kutsadura eta errepresioa, 1969. urteko Erandioko giro grisaren protagonista nagusiak

“*Caminito de Erandio, carbon y pena, dispararon al aire, rema que rema...*” Imanol Larzabalek olerki honegaz Erandion 1969. urtean gertatutakoa gogorarazi gura izan zuen. Zoritxarrez, gure nagusiek (eta kasu honetan ez hain nagusiek) kontatzeko dituzten istorioak, askotan historiaren parte direnak, entzuteko gitxitan egoten gara prest, eta gure herrietako altxorrek diren kontu ugari bidean lotzeko arriskuan daude.

Gure eskualdeko herri batean gertatu bazen ere, gitxitan berba egiten da Uribe Kostan *Erandioko gertakizunen* gainean: urriaren 28an eta 29an 40 urte beteko dira poliziak Anton Fernandez eta Josu Murueta erandioztarrak hil zituenetik. Gainera, istilu haietan hamaika zauritu eta atxilotu izan ziren, eta Erandiok urte ugari behar izan zituen sarraski hura gainditzeko.

Erandioko zinegotzi ohi Josu Cerratok akorduan duen legez, 60. hamarkada hasierarako bazebiltzan auzokideak protestan. Garai hartan, fabrika ugari Erandion zuten egoitza, Axpe eta Asua inguruan batez ere. Gainera, alboko herrietan ere makina bat lantegi zabaldu ziren, Erandio fabrikaz inguratuta utziz. Hala, haizeak beti eroaten zuen kutsadura herrira, ondorioz bertan bizitzea jasanezina bihurtu zen.

Emakumeak izan ziren horregatik kezkaka kalera atera ziren lehe-

nengoak. Gizonak lantegietan zeuden bitartean, andreak plazan biltzen hasi ziren eta mobilizazioak antolatu zituzten, “*Nos vamos a morir, fuera el gas*” goiburuagaz. Kontxi Fernandezek oso argi gogoratzen du poliziek askotan egurtu zutela, alaba aldean zeramala. Emakumeen mobilizazio haietan hasi zen polizia lehenengo tiroak botatzen, baina erandioztarren alkartasunari esker ez zen ezbeharrik gertatu (portalak zabaltzen zituzten manifestariak babes zitezen, balkoietatik denetarik botatzen zieten poliziei e.a.).

1969ko urriaren 28an eta 29an, osterara, alkartasunak ezin izan zuen sarraskia saihestu. Lehenengo gau hartan auzokideek errepide nagusia eta trenbidea ebaki zituzten. *Grisak* tiroka agertu ziren eta Anton Fernandez hil zuten, leihotik begira zegoela. Manolo Castrillo eta beste lagun bi ere tiroz zauritu zituzten. Erandioko portal guztiak parez pare zabaldu ziren manifestariak barruan hartzeko, eta horri esker biktimen kopuruak ez zuen gora egin.

Hurrengo eguneko eguerdian, inolako antolakuntza barik, ehunka erandioztar batu ziren plazan, aurreko eguneko istiluengatik protesta egiteko. Adin guztietako herritarrak batu ziren, baita fabriketako beharginak ere, lohihartzekoak jantzita. Mobilizazio hartan hil zuten Josu Murueta gaztea tiroz, eta zauritu

ugari egon zen. Horiei lagundu asmoz, odola emoteko ilarak amaiezina izan ziren, auzokideek jazarritako familiei babesa eskaini zieten. Horren adierazgarri Muruetaren hileta izan zen, herri osoa urten zen kalera familiari alkartasuna adieraztera, eta Erandioko balkoietan auzokideek izarak eseki zituzten, egun haietako giro beltzari aurre egiteko asmotan-edo.

Hala ere, urtetan mantendu zen Erandion giro beltza. Herriak gertakizunei tinkotasunez erantzun bazion ere (greba orokor bat tarteko), erandioztarrak guztiz atsekabetuta gelditu ziren. Erandioko jaiak, eskualdean ez ezik Bizkaia osoan ospetsuak zirenak, bertan behera gelditu ziren bost urtez. Hainbesteko errepresio harren aurrean, Erandiok amorrut, baina ezintasunez erantzun behar izan zuen.

Gertakizun haietatik 40 urte pasa dira, baina Erandioko herriak oraindino ez du gertatutakoa eta jasandakoa ahaztu. Horregatik, Ahaztuak 1936-1977 alkarteak urriaren 28an arrastiko 07:00etarako zine-foruma antolatu du Josu Murueta kultur aretoan, eta hilaren 29an “Memoria egin, justizia egin” hitzaldia eskainiko dute udaletxe azpiko lokalean. Bestalde, urriaren 31n eguerdiko 13:00etan, ekitaldia egingo dute Josu Murueta plazan, LAB sindikatuen lankidetzagaz. ○

“Bazter honetan iraganak bide ematen dio orainari”



“Zeinek ez du bere azalean inguru hartako haizea sentitu udazken edo neguko arratsalde edo gau batean?”

UK adizkariko lagunek Getxoko bazter kuttunen bat aukeratzeko eskatu zidatenean, berehala etorri zitzaidan burura bazter eder eta ikusgarri hau: USATEGI. “Aitu, gizona! ondo estutu eixu polborea alperrik galdu ez daitten. Sue, Jainkoarren!” Horrelako aginduak eta gogorragoak entzungo ziren gaur egungo Usategin XVII. mendean. Izan ere, garai hartan, kanoi bateria zegoen bertan, Bilboko sarbidea defendatzeko. Leku honek, beraz, balio estrategikoa zuen sasoi hartako itsasaldea zaintzeko, eta INDARRAREN ARRAZOIA zela eta, bandera bidezko komunikazio sistemaz gain, kanoiak ere ezarri zituzten bertan.

Baina, ARRAZOIAREN INDARRA berriro nagusitu zenean, parke bihurtu zuten. Eta izanak bere isla utzi du izenean. Sutegei ote? Zeinek ez du bere azalean inguru hartako haizea sentitu udazken edo neguko arratsalde edo gau batean? Bada, horixe, lagunok, haizete horietako batek bertako izenaren letrak lekuz aldatu, eta hasieran SUTegia izan zitekeena, UStegia bilakatuko zen. Eta errazago ahoskatzeko, A bat sartuko zuen tartean: USATEGIA. Lagun batek dioen moduan, “sasi etimologia”, baina tira! Algortan badira hainbat leku Usategiren pareko ezaugarriak dituztenak,

baina niretzat txoko honek xarma berezia du: patxada, atsedena, haize ernagarria, bero erregarria, goitiko ikuspegi ederra..., eta ez tita dauden “usapalentzat” hitz goxoak elkarri esateko leku aparta. Bazter honetan iraganak bide ematen dio orainari: garai bateko gerra gertaerek, zorionez, aspaldi eman zioten lekukoa gaur egungo patxadari; kanoikadak eragindako urdurtasunaren gainetik atsedena nagusi da bertan; eta joan den mendeko Ezkerralde narriatuaren orde, mende honetako Ezkerralde berritua dugu ikusgai. Eta holan bazan, ez bazan, sar naza-tela kalabazan eta ager nadila Usategiko plazan. Ondo izan. o

Boga Jatetxea

Aurpegi barria, eskaintza zabala



Alvaro Montero eta Eder Montero anaiak, Bogan

Ez da barria, baina aurpegi barriagaz aurkeztu zitzaigun Algortako bihotzean dagoen Boga Jatetxea abuztuan. Montero-Lopez sendia arduratu da jatetxea aurrera ateratzeaz azken urteotan; herrian ezagunak dira, aurretik Tellagorri, Villabotas eta Jolas-aurre jatetxeetan ibili direlako. Uda hasieran Basagoiti Etorbideko etxea zaharberritzea erabaki zuten: “Eraikin zaharra da, 1840. urtekoa gutxi gorabehera. Historia handia du; hemen sortu ziren Getxo Arraun eta Futbol taldeak eta Bizkaiko lehenengo gozo-denda ere bertan egon zen”. Kafea hartzeko zein afaltzeko lekua dago Bogan; tabernaz gainera, terraza handia eta jangela bi ditu: “Jangelan 60 pertsona sartu daitezke eta terrazan beste 60”. Eguneko menua, menu berezia, karta eta anoak dituzte aukeran; baita

pintxoak ere: “Txuletoia, bakailaoa pil-pilean, txipiroiak plantxan... euskal sukaldaritza tradizionala egiten dugu, nahiz eta batzuetan ukitu berezia eman”. Martitzenak izan ezik, goizetik gauera dago zabalik, bazkari zein afaritarako. Aldez aurretik eskatuz gero, enpresa bazkariak zein ospakizun bereziak egiteko aukera eskaintzen dute. Pozik daude orain arte jendeak egindako harrera onagaz: “Herrian nahiko ezagunak gara beste jatetxe batzuk izan ditugulako eta horrek eragina dauka”. Krisi madarikatuagatik galdetu diegunean, ez dira gehiegi kexatu: “Zertxobait nabaritu dugu, baina ez gehiegi. Barria denez, jendeak probatzeko gogoak ditu eta ez zaigu lagunik falta”.o

Basagoiti Etorbidea 63, ALGORTA
Tf. 94 491 57 94



ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Etxekina, Gabele erailaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

AREETA



KONTXI



ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaletan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



GOZOLATzea

GALDARETXE

- Moldagen 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletos 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

Toponimoa > Usategi parkea

Usategi (parkea):

Leku honek hiru izen izan ditu: gaur egun berreskuratu dugun Usategi zaharra, San Inazio bateria eta Banderas. Inguru hau Getxoko herriarena zen eta San Nikolas eguneko erromeriak egiteko erabiltzen zen, gerrak zirela-eta gotorlekua jarri zuten arte. Hemendik banderen bitartez Bilbo gainean dagoen Elorriaga mendian zegoen gotorlekuari mezuak bidaltzen zitzaizkion, hori dela eta Banderas deitu izan zitzaion, aipatutako Elorriaga bezalaxe. Usategiko gotorlekua 1641 inguruan eraiki zuten, baina 1684an konponketa lanak egin behar izan zituzten. Gerrarik ez zegoenean kanoi biak San Nikolas elizako arkupeetan gordetzen zituzten. 1759an bateria konpondu eta San Inazio izena eman zioten. Azkenean gerra ministeritzaren eskuetara pasa zen, eta tira-bira askoren ostean, Getxoko herriak berreskuratu zuen eta parke egin.



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO


basalbo@basalbobaserria.com



ITHASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Auziluzo z.g. • T.F. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



BATIZ KRISTALDEGIA
• BIKIERAK
• GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
• ISMILU ENFALDOAK
• INSTALAZIO OROKORRAK
• FUSIN
Ilieta z.g. (Sarrikobasogaz bat)
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA



GOIZEAN
"Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruin lehorrak - Aldizkariak - Lisamoniak
Ordutia Mondatzen 1 Tellebxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 490 02 88
GETXO ALGORTA



Usategi kafetegia

*Usategi parkea z.g.
Algorta*

*Tf. errenterak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Uda irailan joan zen eta hala ere oraindino txankletakaz ibiltzen zara kaletik. Ondo dago uda apur bat luzatzea, baina gutxika lanean hasteko garaia heldu da. Animo, gura baduzu txankletak jantzi, baina gutxienez galtzerdiak kendu!

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
A, B eta C gripeak harrapatuko dituzu, eta etxean sartuta egon beharko zara, *Salvame* eta horrelako programak ikusten. Sukarrak gora egingo ditu, baina txurxu-muxu guztiak ikasiko dituzu!

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Lan eta lan zabilza egun osoan, koadrila eta etxeokak ikusi barik. Asteburu honetan gutxienez atsedean hartu eta saiatu gozatzin: bazkaria antolatu, mendira joan, poteoan urten...

META

(Irailak 17 urriak 16)
Egunak aspergarriak eta luzeak egiten zaizkizu. Zergatik ez duzu ikastaro batean izena emoten? Lortsak alde batera utzi eta hasi eguneko 24 orduci etekina ateratzen.

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Beti dituzu lagunak atzetik gomendio eske, senide guztien arazoak entzuten dituzu... baina zuk noizbait kontatzen duzu sentitzen duzuna? Barruan dana gordetzea ez da batere ona, azkenean eztanda egingo duelako.

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Bizitza amestu beharrean, ametsak bizi behar direla esaten duzu askotan, baina gero ez duzu sekula esaldi horrek dioena betetzen. Aukera barria izango duzu aste honetan, beraz ez desaprobatxatu!

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Zuen begiradak gurutzatzen direnean urduri jartzen zara. Noiz aitortu behar diozu benetan sentitzen duzuna? Lar itxaronez gero, aukera galduko duzu eta gero damutuko zaizu.

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Zure urtebetzea ospatzeko lagunak jai sorpresa antolatuko dizute. Senideak, aspaldiko lagunak.. danak egongo dira zure zain! Baina ez esan hemen sekretua kontatu dizugula e!

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Astelehena biharamun, ezinez lehertzeaz nago... asteburu guztietan parranda botatzen duzu! Zure ajeak gero eta luzeagoak dira, baina barikurako pasatzen zaizu. Gutxienez lagunak gonbidatu!

EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Atzerrian egon den lagun bat etorriko da bueltan, eta beragaz geldituko zara bere bidaiaren nondik-norakoak kontatzen diezazkizun. Arraro sentituko da; beraz, bere alboan egon eta zaindu!

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Motxila hartu eta mundua zeharkatzeko gogoak duzu. Baina seguru oraindino Euskal Herriko bazter guztiak ezagutzen ez dituzula. Asteburu hau egokia izan daiteke!

NEGUA


(Azaroak 16 abenduak 20)
Gaizki-ulertu batek min handia egingo duzu, eta mundua lurrera eroriko zaizu. Lasai, arazoari buruz berba egin ostean, zure errakuntzaz jabetuko zara eta dana bere onera itzuliko da.

Koskakideak behar ditugu
irratia aurrera jarrai dezan!!

Izena..... Deiturak..... Herria.....
E-mail..... Telefonoa.....
Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

**12€ urtean !!
€1 hilean !!**
koskairratia@koskairratia.com
k/ Amesti 6 4. pisua 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com

**Bidali zure datuak
posta elektroniko edo
posta arrunt bidez**
KOSKA
irratia 108 fm



HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuma

1. Euskararen dialektoak. 2. Samarioaren ikur kimikoa. Eramailea. 3. Suari dariona. Okela edo haragi erre. 4. Ukapena, ezeztapena. Emakume izena. Oxigenoaren ikur kimikoa. 5. Kisua, karea. Aluminioaren ikur kimikoa. 6. Bokal errepikatua. Jauzika. 7. Bat, zenbaki erromatarren arabera. Su. Nafarroa Garaiko iparraldean bizi den jatorri ezezaguneko arraza bateko kide. 8. Nirea. Erromatzuako etxaldea. 9. Miatu. Herri hizkeran, eta. 10. Kimikari buruzko ikerketak esperimentuak edo saioak egiten dituztenak.

Goitik behera

1. Eskuarteak, baliabideak. 2. Umea, amaren sabelean dagoen bitartean. Gaixo. 3. Sufrearen ikur kimikoa. Longidako auzoa. Ozeano Bareko irla. 4. Gas multzo. Ausartasunez. 5. Areago. Kisuak, klerak. 6. Urtearen bosgarren hilabete, maiatz. Ate, hitz elkarteetan. 7. Amuzki, beita, arrai-nak atzemateko xedean amuan ipintzen den zera. Oinarrizko edari. 8. Biloa. Eguneroko jaki. Bokala. 9. Helduak euskalduntzeko eta alfa-betatzeko erakundea. Zigoitiako auzoa. 10. Kaiolan sartuak.

Soluzioa

K	V	I	R	V	K	I	M	I	K
V	T		U	T	V	K	V	R	V
U	S	I	V	E	R	U	E	N	
T	O	G	V	H	V	G	I		
V	K	O	T	V	S		V	V	
T	V		V	I	K	U	S	I	G
O		V	N	V		V	O	K	U
I	K	E	R	R	E		V	E	K
V	E	T	V	O	R	E		M	S
K									

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Kutsaduragaz lotutako zein herritako gertakariak ekarri ditugu gogora ale honetan?

> Aurrekoaren erantzuna: **Frantzia**
> Irabazlea: **Eneko Gisasola***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

argia

astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan

Zer ikusi dezakegu kabletik eskegita ale honetako 5. orrialdean?

- **Gona**
- **Zapatilak**
- **Gerrikoa**

> Aurrekoaren erantzuna: **Erdi Aroa**
> Irabazlea: **Ana Garcia***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

argia

jolasak eta jokuak



Bittor Egurrola

SAN AGUSTIN IKASTETXEKO FUTBOL TALDEA, 1955

Areetako ikastetxe hau Uribe Kostako gizonezkoentzako bakarra zen, pribatua. Ez zegoen beste ikastetxerik, ez pribaturik (Gazteluetakoa egin arte) ez publikorik (Getxo I 1968koa da). Antza denez, irakasle batzuk "egurra" banatzen oso trebeak ziren. Apaiz bat ere pedagogia horren aldekoa zen; behin mutiko batek esan zion: "Barriro jotzen banauzu, neuk ere joko zaitut". Kontuan izanda apaizen boterea garai hartan, pentsa nola egongo zen mutiko hura honela aurre egiteko, nori eta apaiz bati. Hamahiru edo hamalau urte bitartekoak dituzu argazkikoak eta Indautxuko Jesuiten ikastetxean daude, eskola arteko partida jokatzeko prest.


Zutunik: Alberdi, Teodoro Iturralde (GB), Rafa Etxebarria, Manchon, Adolfo Bolibar, Juan txu Larrazabal, Javier Losada (GB), Eguskiza, Maisner, Joserra Zabala (atezaina).

Makurtuta: Zabala "Kake", Maisner, Maisner, Gabriel Arroyo, Pedro Alvaro, Bernar, Arrizabalaga.

BORJA PEREZ > aktorea

“Postreak baino ez dituen jatetxea sortzea proposatuko nuke”

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Hiper aktiboa.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Megan Fox aktoreak lan egiten duen edozein filmetan.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Okindegi bateko labean behar egingo nuke. Oso interesgarria iruditzen zait ogia, pastelak, tartak... egitea.

Zure hautzaroko oroitzapen bat?

Nire amari arrautza frijitu bi sukaldatzeko eskatzen nionean. Ez zuen inoiz egin.

Badaukazu ohitura txarren bat?

Altxatu bezain laster musika oso altu jartzea, dutxa hartu eta gosaltzen dudan bitartean. Imajinatzen dut auzokideek ohitura txarra dela esango dutela.

Aitor dezakezun bizio bat.

Janari gozoak. Jatetxeetatik gehien gustatzen zaidana postreak dira. Are gehiago, postreak baino ez dituen jatetxea sortzea proposatuko nuke.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Brujasera, oso leku ederra delako.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Ia dana barkatzen dut, baina ez dut sekula ezer ahazten.

Eguna ala gaua?

Eguna.

Zein da zure ametsetako bat?

Japonian denboraldi luze bat bizitzea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Urduña, oso lasaia delako eta paisaia ederrak dituelako. ○

LABURREAN— Ustekabean etorri zitzaion Borja Perezi ospea. Natxo del Agua eta Ruben Ontiverosen zuzendaritzapean, 2005ean jaio zen *Que vida mas triste* umore telesaila. Lehenengo hiru urteetan interneten bidez bakarrik ikusteko aukera bazegoen ere, iaz La Sextara saltoa emon zuten, arrakasta handiz gainera. Borjak izen bereko protagonistaren papera egiten du: garabi bategaz behar egiten duen gazte basauriarra, gurasoen etxetik joateko bate-re asmorik ez duena eta freaky samarra orokorrean. QVMT-ren joan etorriak ikusteko, astelehenetik barikura 17:25ean La Sexta baino ez duzu jarri behar. Seguraski batek baino gehiagok bere burua identifikatua ikusiko du Basauriko mutil hauekaz!

Borja Aranberri > Armintzako Arresi Hotela

“Q agiriak gure lana erraztu eta bezeroenganako zerbitzua hobetzea ekarri du”

Euskal Autonomia Erkidegoko 267 establezimenduk lortu dute dagoeneko turismo Q kalitate egiaztagiria. 2000 urtean jaio zen Arresi Hotela ere, Armintzako bista ederra izateaz gain, kalitatezko zerbitzua eskaintzeaz harro egon daiteke.

—Turismo Q kalitate ziurtagaria eskuratzeari lortu zuen Arresi Hotela. Zergatik erabaki zenuten horrelako sistema bat martxan jartzea?

—Gure helburua bezeroarenganako zerbitzua hobetzea izan da beti. Turismoagaz lotuta dauden kalitatezko sistemak martxan jarri argi utzi gura genuen hori zela gure interes nagusia: bezeroari zerbitzu ona eskaintzea.

—Kalitate sistema egiaztatua edukitzeak, zer nolako abantailak ekarri dizkio zure negozioari?

—Hasteko, ziurtagiri hau edukitzeak gure lana kontrolpean izango dugula bermatzen digu. Egunerokotasun finkoa jarraitzera behartzen gaitu eta horrek, azkenean, gure lana errazten du. Barne-mailan, esaterako, antolakuntza hobea dugula nabarmendu behar dugu, gure egitekoen kontrol zuhurra eroaten dugulako. Gainera, sistema honegaz ziur egon gaitezke gure lana ondo eginda egongo dela, ez dugula ezer ahazten.

—Eta hobekuntza horiek azkenean bezeroak non igartzen ditu?

—Kalitate ziurtagaria edukitzeko beharrezkoa da jarraibide bat edukitzea. Adibidez, sistemak ondo zehazten digu bezeroak zer nolako informazioa jaso behar duen, zer den hotelak euren eskura jarri behar duena. Q kalitate ziurtagiria duen hotel batera doan bezeroak, argi izango du jaso beharreko

informazioa jasoko duela. Bezeroak kalitatezko zerbitzua jasoko duen bermea izango du beti.

—Turismoaren arloan behar egiten duten gainontzeko enpresari eta eragileei kalitate-sistema egiaztatua abian jartzea gomendatuko zenieke? Zergatik?

—Bai, zalan-tza barik, gure negozioa hobeto kuadeatzen laguntzen digulako. Negozio txikiak izan arren (gure hotelak ere oso langile gutxi ditu), bakoitzaren ahalmenaren arabera kalitate sistema bat abiatzea gomendatuko nieke. Adibidez, negozioan arazo bat sortzen denean, ikuspuntu bakarretik aurre egin beharrean beste ikuspuntu batzuk bilatzen laguntzen digu, eta hori oso aberasgarria da.

“Lasaiago egiten dugu gure beharra, ezbeharrak aurreikusten ditugulako eta horrek lehiakortasunean eragina duelako”

—Eta zeintzuk dira, zure ustez, kalitate sistema honek izan dituen ezaugarriak garrantzitsu eta baliogarrienak?

—Batez ere mantenimenduaren kontrola eroaten laguntzen digula azpimarratuko nuke. Gure lana antolatuagoa egiten dugu, eskema finkoa jarraitzen dugulako. Azken finean, beharra lasaitasunez egiten dugu, ezbeharrei aurre egiteko erraztasun handiagoak ditugulako. Arazoak etorri arte itxaron beharrean aurreikusi egiten ditugu. Horrelako plangintzak azkenean negozioaren lehiakortasunean eragin zuzena du, eta horrek azkenean lortzen du bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaintzea. ○



Borja Aranberri bere gurasoak, Arresi Hotelean

Eusko Jaularitzak, Basquetour, Turismoko euskal agentziagaz batera, enpresarien esku jartzen ditu beharrezko diren baliabide eta laguntzak bere erakundeak lehiakorragoak izateko:

• Jardun Onen Programa: Honen helburua enpresarien “profesionalizazioa” hobetzea da eta norakoaren kontzientzia sortzea. Euskadin 267 establezimenduk lortu du dagoeneko kalitate turistikoagaz konpromisoaren egiaztagiria.

• Q Kalitate Turistikoaren Programa: Bezeroen gogobetetzea bermatzen duen programa. Euskadin 267 establezimenduk lortu du dagoeneko Kalitate turistikoaren Q egiaztagiria.

• EFQM Bikaintasun Ereduaren Programa: Progama honek erakundeei proposatzen die kalitateagaz bikaintasun maila igotzea. Euskadin 17 establezimenduk parte hartzen du honetan.

Jar ezazu kalitate turistikoaren Q ziurtagiria zure establezimenduan!

**94 607 75 86
94 404 74 70**

**www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net**



II. edizioa

izarren distira!

Wanted

Artista bila gabiltza!

12-18 URTE BITARTEKO GETXOZTARRAK BEHAR DITUGU!

Saria: ikas bidaiarako laguntza
ala asteburu pasa zure lagunekin

Izena emateko azken eguna: **AZAROAK 6**

Casting-ak: azaroak 10 eta 11

Gala: azaroak 21, 19:00etan

Andres Isasi Musika Eskolan (Areeta, Getxo).

Sarrera dohainik

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.izarrendistira.nireblog.com



Tuentin
ere zure
zain!